

Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» Gehigarriak, XLIX

HAUR PRODIGOAREN PARABOLA
IPAR EUSKAL HERRIKO 150 BERTSIOTAN

Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain
(arg./eds.)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilbao Bilbo
2004

ASJU-REN GEHIGARRIAK
ANEJOS DE ASJU
SUPPLEMENTS OF ASJU

- v. NILS M. HOLMER, *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*, 1964, 1991. 12 €.
- vi. LUIS VILLASANTE, *Fr. Pedro A. de Añíbarro. Gramática vascongada*, 1970. 8 €.
- vii. CÁNDIDO IZAGUIRRE, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*, 1971. Segunda edición con índice inverso de Gerardo Markuleta, 1994. 12 €.
- viii. *Papers from the Basque Linguistics Seminar. University of Nevada. Summer 1972, 1974.* 10 €.
- ix. JULIEN VINSON, *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Con las anotaciones del ejemplar de Julio de Urquijo*, 1984. 20 €.
- x. LUIS MICHELENA, *Sobre historia de la lengua vasca*, 1988. Agortua.
- xi. LUIS MICHELENA IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 12 €.
- xii. HUGO SCHUCHARDT *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*, 1989. 8 €.
- xiii. MANUEL AGUD † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agortua.
- xiv. JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 36 €.
- xv. RICARDO GÓMEZ JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz I: XVI-XIX. mendeak*, 1992. 27 €.
- xvi. BEÑAT OYHARÇABAL, *La pastorale souletine: édition critique de «Charlemagne»*, 1990. 27 €.
- xvii. RICARDO GÓMEZ JOSEBA A. LAKARRA (arg.), *Euskalaritzaren historiaz II: XIX-XX. mendeak.* Prestatzen.
- xviii. JOSEBA A. LAKARRA, *Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)*, 1994. 8 €.
- xix. MANUEL AGUD † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, II. Ardun-Beuden*, 1990. Agortua.
- xx. LUIS MICHELENA, *Lenguas y protolenguas*, 1963, 1986, 1990. 8 €.
- xxi. ARENE GARAMENDI, *El teatro popular vasco. (Semiótica de la representación)*, 1991. 12 €.
- xxii. LASZLÓ K. MARÁCZ, *Asymmetries in Hungarian*. 1991. 15 €.
- xxiii. PETER BAKKER, GIDOR BILBAO, NICOLAAS G. H. DEEN, JOSÉ I. HUALDE, *Basque pidgins in Iceland and Canada*, 1991. 10 €.
- xxiv. MANUEL AGUD † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, III. Beule-Egileor, Babarraso-Bazur*, 1991. Agortua.
- xxv. JOSÉ M^a SÁNCHEZ CARRIÓN *Un futuro para nuestro pasado*, 1991. 15 €.
- xxvi. MANUEL AGUD † ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, IV Egiluma-Galanga*, 1991. Agortua.

HAUR PRODIGOAREN PARABOLA IPAR EUSKAL HERRIKO
150 BERTSIOTAN

Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» Gehigarriak, XLIX

HAUR PRODIGOAREN PARABOLA IPAR EUSKAL HERRIKO 150 BERTSIOTAN

Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain
(arg.)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
Bilbao Bilbo
2004

Liburu hau EHU-ren ekintza berezietarako
diru-laguntzarekin argitaratu da.

- © G. Aurrekoetxea/X. Videgain (arg.)
- © Julio Urkixo Euskal Filologia Mintegia
- © Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 84-8373-677-2

Lege-gordailua: BI - 2.799-04

Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop.
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao

Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)

J. Allières zenaren oroitzapenetan bere ikasleek

INDEX

1. Aintzin-solasa	1
2. Sarrera	3
2.1. Edouard Bourciez	3
2.2. «Recueil des idiomes de la Région Gasconne» bilduma	5
3. «Recueil des idiomes de la Région Gasconne» bildumako euskal testuak	13
3.1. 1193-Lehuntze/Lahonce	13
3.2. 1194-Mugerre/Mouguerre	15
3.3. 1196-Urketa/Urcuit	16
3.4. 1198-Arrangoitze/Arcangues	18
3.5. 1201-Donibane-Lohizune/Saint Jean-de-Luz	19
3.6. 1202-Donibane-Lohizune/Saint Jean-de-Luz	21
3.7. 1203-Azkaine/Ascain	23
3.8. 1204-Bidarte/Bidart	24
3.9. 1205-Biriatu/Biriadou	26
3.10. 1206-Ziburu/Ciboure	27
3.11. 1207-Getaria/Guéthary	28
3.12. 1208-Hendaia/Hendaye	30
3.13. 1209-Urruña/Urrugne	31
3.14. 1210-Uztaritze/Ustaritz	32
3.15. 1211-Uztaritze/Ustaritz	34
3.16. 1212-Ahetze/Ahetze	36
3.17. 1213-Arbona/Arbonne	37
3.18. 1214-Haltsu/Halsou	39
3.19. 1215-Jatsu/Jatxou	40
3.20. 1216-Larresoro/Larressore	42
3.21. 1217-Senpere/St-Pée-sur-Nivelle	43
3.22. 1218-Milafranga/Villefranque	45
3.23. 1219-Ezpeleta/Espelette	47
3.24. 1220-Ezpeleta/Espelette	48
3.25. 1221-Ainhoa/Ainhoa	50
3.26. 1222-Kanbo/Cambo	51
3.27. 1223-Itsasu/Ixassou	53
3.28. 1224-Luhuso/Louhossoa	54
3.29. 1225-Sara/Sare	55
3.30. 1226-Zuraide/Souraïde	57

3.31.	1227-Hazparne/Hasparren	58
3.32.	1228-Lekuine/Bonloc	60
3.33.	1229-Makea/Macaye	61
3.34.	1230-Mehaine/Méharin	63
3.35.	1231-Lekorne/Mendionde	64
3.36.	1232-Donostiri/St. Esteben	65
3.37.	1233-Donamartiri/St. Martin	67
3.38.	1236-Aiherra/Ayherre	68
3.39.	1237-Beskoitze/Brisconsin	69
3.40.	1238-Bastida/Labastide-Clairence	71
3.41.	1243-Bardoze/Bardos	72
3.42.	1249-Maule/Mauléon	74
3.43.	1250-Maule/Mauléon	75
3.44.	1251-Ainharbe/Ainharp	77
3.45.	1252-Ürrüstoi-Larrabile/Arrast-Larrabieu	78
3.46.	1253-Altzürükü/Aussurucq	80
3.47.	1254-Barkoxe/Barcus	82
3.48.	1255-Sarrikotapea/Charritte-de-bas	83
3.49.	1256-Sohüta/Chéraute	85
3.50.	1257-Ündüreine/Espès Undurein	86
3.51.	1258-Garindaine/Garindein	88
3.52.	1259-Gotaine-Irabarne/Gotein-Libarrenx	89
3.53.	1260-Ospitalepea/L'Hôpital St-Blaise	90
3.54.	1261-Idauze-Mendi/Idaux Mendy	92
3.55.	1262-Mendikota/Menditte	93
3.56.	1263-Mitikile/Moncayolle	95
3.57.	1264-Muskildi/Musculdy	96
3.58.	1265-Urdiñarbe/Ordiarp	97
3.59.	1266-Arrokiaga/Roquiague	99
3.60.	1267-Bildoze/Viodos	100
3.61.	1268-Donapaleu/St-Palais	102
3.62.	1269-Donapaleu/St-Palais	103
3.63.	1270-Aiziritze/Aicirits	104
3.64.	1271-Amenduze/Amendeux	105
3.65.	1272-Amorotze/Amorots	107
3.66.	1273-Arberatze-Zilhekoa/Arbérats-Sillègue	108
3.67.	1274-Arberatze-Zilhekoa/Arbérats-Sillègue	110
3.68.	1275-Arboti-Zohota/Arbouet-Sussaute	112
3.69.	1276-Arüe/Aroue	113
3.70.	1277-Arruta-Sarrikota/Arraute-Charritte	115
3.71.	1278-Behauze/Béguios	116
3.72.	1279-Behauze/Béguios	119
3.73.	1280-Behaskane-Laphizketa/Béhasque-Lapiste	121
3.74.	1281-Bithiriñe/Beyrie	123
3.75.	1282-Gamue-Zohazti/Camou-Suhast	124
3.76.	1283-Domintxaine-Berroeta/Domezain-Berraute	126
3.77.	1284-Etxarri/Etcharry	128
3.78.	1285-Gabadi/Gabat	129
3.79.	1286-Garruze/Garris	131
3.80.	1288-Ilharre/Ilharre	132

3.81.	1290-Larribarre/Larribar	134
3.82.	1291-Lohitzüne/Lohitzun	135
3.83.	1292-Lukuze-Altzumarta/Luxe-Sumberraute	136
3.84.	1293-Martxuta/Masparraute	138
3.85.	1294-Oragarre/Orègue	139
3.86.	1295-Ostankoa/Orsanco	141
3.87.	1297-Pagola/Pagolle	142
3.88.	1298-Uharte-hiri/Uhart-Mixe	143
3.89.	1299-Iholdi/Iholdy	145
3.90.	1300-Iholdi/Iholdy	146
3.91.	1301-Arhantsusi/Arhansus	148
3.92.	1302-Armendaritze/Armendarits	150
3.93.	1303-Bunuze/Bunus	151
3.94.	1304-Heleta/Hélette	153
3.95.	1305-Hozta/Hosta	154
3.96.	1306-Ibarrola/Ibarrolle	156
3.97.	1307-Irisarri/Irissarry	157
3.98.	1308-Jutsi/Juxue	160
3.99.	1309-Landibarre/Lantabat	162
3.100.	1310-Larزابale /Larceveau	163
3.101.	1311-Izura/Ostabat	165
3.102.	1312-Izura/Ostabat	166
3.103.	1313-Donaixti-Ibarre/Saint-Just-Ibarre	168
3.104.	1314-Suhuskune/Suhescun	169
3.105.	1315-Baigorri/St. Etienne-de-Baigorri	170
3.106.	1316-Baigorri/St. Etienne-de-Baigorri	172
3.107.	1317-Aldude/Aldudes	174
3.108.	1318-Anhauze/Anhaux	175
3.109.	1319-Azkarate/Ascarat	177
3.110.	1320-Banka/Banca	178
3.111.	1321-Bidarrai/Bidarray	179
3.112.	1322-Irulegi/Iroulégu	181
3.113.	1323-Lasa/Lasse	182
3.114.	1324-Ortzaize/Ossès	184
3.115.	1325-Urepel/Urepel	185
3.116.	1326-Donibane-Garazi/St Jean-Pied-de-Port	187
3.117.	1327-Donibane-Garazi/St Jean-Pied-de-Port	188
3.118.	1328-Ahatsa-Altzieta-Bazkazane/Ahaxe-Alciette-Bascassan	189
3.119.	1329-Aintzila/Aïncille	191
3.120.	1330-Ainhize-Monjolose/Aïnlice-Mongelos	192
3.121.	1331-Arnegi/Arnéguy	194
3.122.	1332-Duzunaritze-Sarasketa/Bussunarits-Sarrasquette	196
3.123.	1333-Buztintze-Hiriberri/Bustince-Iriberry	197
3.124.	1334-Zaro/Çaro	199
3.125.	1335-Ezterenzubi/Estérençuby	200
3.126.	1336-Izpura/Ispoure	202
3.127.	1337-Jatsu/Jaxu	203
3.128.	1338-Lakarra/Lacarre	205
3.129.	1339-Lekunberri/Lecumberry	207
3.130.	1340-Mendibe/Mendive	208

3.131.	1341-Donazarre/St Jean-Le-Vieux	210
3.132.	1342-Eiheralarre /St Michel	212
3.133.	1343-Uharte Garazi/Uhart-Cize.	213
3.134.	1344-Atharratze-Sorholüze/Tardets-Sorholus.	215
3.135.	1345-Atharratze/Tardets	216
3.136.	1346-Altzai/Alçay.	218
3.137.	1347-Aloze/Alos.	219
3.138.	1348-Gamere-Zihiga/Camou-Cihigue	221
3.139.	1349-Etxebarre/Etchebar	222
3.140.	1350-Hauze/Haux	224
3.141.	1351-Lakarri/Lacarry	225
3.142.	1352-Liginaga/Laguinge.	227
3.143.	1353-Larraine/Larrau.	229
3.144.	1354-Lexantzü-Zunharre/Lichans-Sunhar	230
3.145.	1355-Ligi-Atherei/Licq-Athérey	232
3.146.	1357-Ozaze-Zühara/Ossas-Suhare	233
3.147.	1358-Santa-Grazi/Ste-Engrace	235
3.148.	1359-Zalgize-Donztebe/Saugis-St-Etienne	236
3.149.	1360-Iruri/Trois-Villes.	238
3.150.	1385-Eskiula/Esquiule	239
4.	Hiztegia	243
4.1.	Testuetako hitz zerrendak	243
4.2.	Zerrendetako hitzak datutegiratu	243
4.3.	Testuaren moldatzea	244
4.4.	Zerrenda bateratuko aldaeren lematizazioa	244
4.5.	Hiztegia eta adizkitegia	246
4.6.	Hiztegia	247
5.	Adizkitegia	393
5.1.	Sarrera	393
5.2.	Adizkien zerrenda alfabetikoa	393
6.	Testuen egile gisa agertzen diren errienten zerrenda	417

1. AINTZIN-SOLASA

Edouard Bourciezek gidatutako «Recueil des Idiomes de la Région de la Gascogne» bildumako euskal testuen ikerketa eta argitalpena aspaldiko asmoa da. Izan ere, urte batzuk joan dira Xarles Videgainek gaia planteatu zidanetik. Testuon bilketa eta argitalpena burutzeko, alabaina, nolabaiteko babes behar genuela iritzirik egin beharri ekin zitzaion. Ahaleginak bere fruitua eman zuen 2002. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak ikerketa-proiektua onartu zuenean. Beraz, ikerketa EHUK babesturako 1/UPV 0033.130-H-14888/2002 proiektuaren bidez bideratu ahal izan da¹. Anartean urrats bat baino gehiago emanak zituen Xarles Videgainek mikrofitxetatik paperera bihurturiko testuak makinatuz.

Testuon argitalpena planteatzen genuen gure ikerketa-proiektuan; hots, eskuizkribuaren eta bertsiio makinatuaren argitalpena. Mikrofitxetan gordetzen ziren eskuizkribuen digitalizatzea tresneria berezi baten bidez lortu zen. Eskerrak eman behar dizkiegu lerro hauen bidez, alde batetik, Bordeleko Unibertsitateko Bibliotekako arduradunari, hain eskuzabal hartu gintuelako, mikrofitxak eta eskuizkribuak gure eskuetan utziz, eta bestetik Beñat Oihartzabal CNRSeko *Iker-Euskal Ikerketa Zentroko* nagusiari, bere ardurapean dagoen mikrofitxa-irakurgailua erabiltzeko baimena ukanagatik.

Mikrofitxak digitalizatu orduan konturatu ginen, ordea, mikrofitxa andana batek ez zuela gutienezko kalitatea eskaintzen. Honek beste bide bat jorratzera eraman gintuen: jatorrizko eskuizkribuaren argazkiak atera eta digitalizatzea, hain zuzen ere. Berritoki baimen berezia eskatu genuen zazpi giltzapean gordetzen ziren bilduma honetako jatorrizko euskal eskuizkribuen argazkiak ateratzeko. Eskariak emaitza ona lortu zuen eta halaxe egin zen, dokumentu guztiak digitalizatuz argazki kamera digital baten bidez.

Aldi berean hasi ziren makinatutako testuen zuzenketak eta hauek amaitu bezain laster testuetako hiztegi eta adizkitegiaren hustuketa. Bidean sortzen ziren eragozpenak gaindituz joan ginen apurka-apurka merkatuan diren tresna informatiko eta berriaz ikerketa-proiektu honetarako eraikitako lematizazioa egiteko laguntza-aplikazio baten bidez.

¹ Proiektukide eta lankide izan ditugu Jose Luis Ormaetxea eta Aitor Iglesias.

Ikerketa eta testuen prestaketa aurreratuxe zegoelarik, argitalpenaz gogoeta egin ostean bi euskarritan argitaratzea erabaki genuen: liburuan eta CD formatoan. Liburuan jatorrizko eskuizkribuak izan ezik gainerako guztia argitaratzea erabaki genuen; CD-an eskuizkribu eta guzti. Behin argitalpen mota erabaki ondoren, diru-laguntza bilako saio arrakastatsua egin genuen 2003.eko Euskal Herriko Unibersitateko Ikerketarako Laguntzen Deialdi Orokorrean parte hartuz. Beraz, argitalpen hau Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaren bidez egin ahal izan da.

Eskerrik beroenak, azkenik, ikerketa hau ateratzen lagundu gaituzten:

- Paul-Henri Allieux, Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitateko Bibliotekako arduradunari, mikrofitxak eta eskuizkribua gure esku uzteko arazo txikienik ere erakutsi ez duelako.
- Beñat Oihartzabal, Iker Euskal Ikerketa Zentroko zuzendariari, zentroko baliabideak gure esku utzi dituelako.

2. SARRERA

Liburu honetan aurkezten ditugun dokumentuak Edouard Bourciez irakasleari zor dizkiogu, E. Bourciez izan baitzen Bordeleko herrialdeko errient guziei manua eman ziena *Haur prodigoa* deitu parabola itzul zezaten herriko bereko mintzairara, hizkuntza hau euskara ala gaskoina izanik. Hori gertatu zen 19. mendeko azken urteetan eta gaur, labur bada labur, Bourciezen bizitza eta obra aipa ditzagun hartze bide du jakintsu horrek.

2.1. Edouard Bourciez

Bourciezen bizitzaz A. Viaut CNRS-ko ikerlariaren artikulua baliatuko dugu gehienik (Viaut, 1995). Jatorriz, Bourciez hasteko ez zen batere gaskoina Niort hirian sortu baitzen 1854an, beraz Saintonge-Poitou herrialdean, hura ez baita gaskoin mintzairaren eremuan sartzen. Irakasle izan zen eta irakaskuntzarako gogoa alarzepean hatzeman zukeen, haren aita jadanik lizeoko historia-irakasle izan baitzuen. Edouard Bourciezen semea ere irakasle ezaguna izan zen haren ondotik.

Haren ofizioko ibilbideak erakusten du emeki-emeki nola aitzinatu zen irakaskuntzaren munduan, ohiko diploma guziak erdietsi zituela bata bestearen ondotik. Lehenik Eskola Normalean (guti edo aski gaurko Irakasle Eskolan) sarturik 1873an, lizentzia eta agregazionea kausitu zituen, gero igorria izan zen Frantziako hainbat lizeotara, eta 1883an sartu zen Bordeleko Unibertsitatean, lehenik laguntzaile gisa, gero *maître de conférences* mailarekin eta azkenik, tesia 1886an iraganik, irakasle izendatua izan zen 1890an. Bordeleko hiriak bultzaturik sortu baitzen orduan Frantziako Hego-Sartaldeko hizkuntzazko eta literaturazko katedra berria, Edouard Bourciez izan zen postu horretan lehen katedraduna eta kargu horretan egon zen lanetik gelditu arte, 1924an. Erretiraturik ere lanean segitu zuen eta adin handian hil zen, 1946an. Ikusten den bezala, Bourciez hiri bakar batean erauntsi zen lanean, beti Bordelen egonez, eta luzaz erauntsi ere artikulua frango eta liburu baliosak eman ez.

Erromanista baten formazioa bildu zuen lehenik eta gero sartu zen besteak beste gaskoin hizkuntzaren ikerketan. Bere tesi nagusia literaturari buruz eskaini zuen *Les mœurs polies et la littérature de cour sous Henri II* titulu pean. Bere bigarren tesia zorroztzago zen teknikaren aldetik, merovingetiar aroko latinerazko joskera ikertu bai-

tzuen, latinez naski, *De Praepositione AD casuali in latinatate aevi Mérovingici* gaiarekin. Oinarrizko jakitate hori bereturik, Bourciez hasi zen interesatzen bere garaiko dialektologo zenbaiten lanez, hala nola fonetika esperimentalaz Rousselotek eman aitzinamenduez, edo Gilliéronek *Atlas linguistique de la France* lan erraldoian bultzatu metodologia geolinguistikoaz.

Unibertsitateko lanak hatsarrean manatu zion frantses hizkuntzaren historia ikertzea lehenik, bere kurtsoa gai honen inguruan eman baitzuen urte askotan. Eskuliburu famatua argitaratu zuen 1899an, *Précis de phonétique française* deitzen dena eta 60 urtez bederen unibertsitateko ikasleek ezin utzizko liburutzat izan dutena Frantziako fakultate guzietan. Liburu honetan badago puntu bat Bourciezen alderdi bat erakusten zuena: *oc* eta *oil* deitutako hizkuntzen arteko desberdintasunen zorroztera entseatu zen. Apurka-apurka eta arrakasta handiko liburuak izan zituen argitalpenetan, datu soziolinguistikoak sartu zituen *oc* hizkuntzaren funtzioa murriztua izan zela erakutsi baitzuen: frantsesez «patois» deitzen den egoeran 15. mendetik goiti *oc* mintzairak nola sartuak ziren zehaztuz joan zen Bourciez. Bestela erranez, hizkuntza baten alderdi historikoak eta kontestualak kontuan hartzen zituen bere lanean.

Beste lan nagusi bat argitaratu zuen 1910an: *Éléments de linguistique romane* eskuliburua. Hainbat argitalpen izan zuen liburuak eta hartaz ere erran daiteke 1970 arte Frantziako ikasle guziek nahitaez hartarik edan dutela. Bi liburu hauekin fama handia izan zuen Edouard Bourciezek.

Bourciez eta gaskoin hizkuntza aipatu behar ditugu. Bordeleko Unibertsitateari Bourciez irakasleak prestigioa eman badio, on da jakitea ber garaian Gaskoinako eta gaskoieraren alderako mugimendu bat Bordele hirian sortu zela eta 19. mendeko bigarren partean intelektualen artean bertako Antzinate eta Erdi Aroko artxiboen ikeretzeko jendea agertu zela. Historialariek, paleografoek argitalpen frango aurkeztu zuten, bereziki Bordeleko herri-artxiboetako dokumentuak edo eta *Livre des Bouillons*, *Livre des Privilèges* eta *Livre des Coutumes* bezalakoak argitaratuz. Ikertzaileen artean J. Delpit (1808-1892), H. Barckhausen (1834-1914) eta oroz gainera Camille Jullian (1859-1933) aipatzekoak dira. Bourciez eta Jullian adiskide ziren, biak elkarrekin sartu berriak izanak baitziren Bordeleko Fakultatean. Bordeleko Herriko Etxeko diru-laguntza bati esker, lan monografiko bat argitaratu zen 1892an eta E. Bourciezek parte hartu zuen liburu honetan beste jakintsuekin batean, berak gaskoin hizkuntzaren ezauzgarrien sintesi diakronikoa eskaini baitzuen. Uste izateko da garai hartan bururatu zitzaizola Bordeleko Akademiako (Euskal Herria barne) hizkuntzen berri ematea: alabaina hiru urte berantago Erakusketa Unibertsala antolatu zuen Bordeleko Herriko Etxeak. Garai hartan ere Camille Jullian diruz lagundu zuen Bordeleko Herriko Etxeak bere *Histoire de Bordeaux* liburua atera zezan.

Ber denboran, Bordelen itzal handiko irakasleak bazituen Unibertsitateak. Bourciezek hartu zuen postuan, bera baino lehenago egon zen irakaslea Achille Luchaire izan zen: gaur ere ezagunak dira haren bi lan nagusiak, *Études sur les idiomes pyrénéens de la région française*, 1879an argitaraturik, alde batetik, eta *Recueil de textes sur l'ancien dialecte gascon d'après des documents antérieurs au XIV^{ème} siècle, suivi d'un glossaire*, 1881ean argitaraturik, bestaldetik. Beste irakasle famatuak ere ezagutu zituen Bourciezek hala nola Emile Durkheim soziologoa, Bordeleko Unibertsitatean egon baitzen 1887tik 1902raino. Unibertsitateak zeukan orduko dinamismoaren le-

kuko da 1879an sortu *Annales de la Faculté des Lettres de Bordeaux* agerkaria, gero *Revue des Universités du Midi* bilakatu baitzen, hartarik sortu baitziren ondotik *Bulletin italien* eta *Bulletin hispanique* agerkariak (gaur egun bizirik dirautenak).

Ez zen beraz Edouard Bourciez bortuko lur mando batean erori bertako hizkuntzak ikergaitzat hartu nahi izan zituelarik. Gure solasetik kanpo egon gintezke Bourciezen gaskoin hizkuntzari buruzko lanak zehatz-mehatz azaltzen has bagintez. Erran dezagun bakarrik gaskoin hizkuntzaren ezaugarriak gero eta nabarmenagoak agertu zitzaizkiola: badakigu gaurko egunean ere puntu minbera dela okzitanierazaleen artean hizkuntza horren batasunaz mintzatzea, hain zuzen gaskoin hizkuntzak erakusten duen nortasun linguistiko indartsua haztatzekotan. Bourciezen aburuak sartu behar dira aro hartako testuinguruan eta ez oraingo eztabaidak kontuan harturik. Oro har gaskoinaren ezaugarriak ez zituen kukutzen; izatekotz guziz azpimarrazten zituen. Adibidez, gaskoinaren kontsonantismoak probentzeratik zinez bereizten zuela idatzi zuen 1910an. Hargatik okzitanieraren batasuna ez zuen arbuiazen (Bourciez 1910). Gehiago dena eta Montaignek bezala, Gaskoinako bereko mugetan barna, biarnes hizkuntzaren berezitasunak aipatu zituen Bourciezek, eta zientifikoki hotz izanik ere, ez zuen gordetzen nolako balio estetikoak zuten mendi aldeko mintzaira honek. Horra 1934ko kongresu batean nola aipatzen zituen eta bere egiten Montaigneren lerro hauek: *Il y a au-dessus de nous, vers les montagnes, un gascon que je trouve singulièrement beau, bref, signifiant, et à la vérité un langage masle et militaire plus qu'aucun autre que j'entende, autant nerveus, puissant et pertinent comme le français est gracieux, délicat et abondant.*/Badago gure gainaldean, mendi partean, eder, zuzen, esanguratsu iduritzen zaidan gaskoinera bat, eta zinez entzun dezakedan zeinahi hizkuntza baino mintzaira orotsago eta militarago da, eta frantsesa grazios, amul-tsu eta joria den bezain zaintsu, indartsu eta egoki (Montaigne, apud Bourciez 1936). Lerro hauen ematean, alabaina, gure asmoa ez da estetikan sartzea baina erakustea nola sortzez gaskoin ez zen Bourciez batek ikertu, maitatu eta defenditu izan zuen bere begien aitzinean murriztera eta histera zozan historikoki hain azkar izan zen hizkuntza.

Horra zer zion 1934an:

La Gascogne est un champ favorable aux investigations d'ordre linguistique. Pourquoi cela? Parce que d'abord cette zone a des limites qui sont fort nettes; parce qu'ensuite on peut y relever des traits originaux, vraiment spécifiques, et qui la distinguent des autres parlars de la France méridionale./Gaskoin herria alor eman-kor da hizkuntza-mailako ikerketek den bezainbatean. Zergatik ote? Lehenik eremu horrek mugarriak oso garbiak dituelakotz, eta gero, hor altxa baitaitezke original eta zinez espezifikoki diren ezaugarriak, Frantzia hegoaldeko beste mintzaireratik eremu hori bereizten baitute (Bourciez 1936).

2.2. «Recueil des idiomes de la Région Gasconne» bilduma

Guk hemen publikatzen ditugun dokumentuak aipatu zituen egun hartan. Uste izateko da gaskoieraren zehazkiago ikertzeko behar zitezkeen tresnen eskasia deitorazten zuela, alde batetik Millardetek Marsanen eta Albreten egin monografiak ez baitzuen beste kiderik ondoko herrialdeetan, bestalde Gilliéronen *Atlas linguistique de la*

France-ko sarea laxoegi zelakoan gaskoieraren fenomeno linguistikoen arteko isoglo-sen zehaztekotan. Oroit gaitezen Lalanneren monografiak ez zirela oraindik argitaratuak eta Jean Séguyk bultzatuko *Atlas linguistique et ethnographique de la Gascogne* beharleku gaitza (zeinetan X. Ravier, J. Allières et J.L. Fossat bezalako lankide argiak izanen baitzituen) ez zela oraino sortua. Eta beraz, 1894an, duela 40 urte lehenago, berak bildutako gaskoierazko dokumentuak aipatu zituen orduan hauxe erranez:

Il y a bien encore un Recueil beaucoup plus vaste, puisqu'il comprend plus de 4000 communes: c'est celui que j'ai fait faire il y a 40 ans par des gens qui d'ailleurs n'étaient pas des linguistes de profession. Je n'insiste pas sur ce Recueil, j'aurais l'air de plaider pro domo: tout ce que j'ajoute, c'est qu'intelligemment consulté il peut rendre de bons services, et qu'il n'a pas toutes les déficiences qu'on lui a prêtées parfois a priori, sans le connaître. Seulement ici encore, le malheur c'est que les résultats de cette enquête forment 17 gros volumes, restés manuscrits, et qui ne sont guère à la portée des travailleurs.

Ba dukegu oraino Bilduma bat, askoz zabalago, ezen 4000 herri baino gehiago zerratzten baititu: hori da nihauk duela 40 urte eginarazi niena, bestalde ofizioz hizkuntzalari ez ziren jende zenbaiti. Bilduma hori ez nuke sobera goratu nahi, iduri bailuke pro domo baizik ez naizela mintzatzen; gehitzen dudana da, zerbitzu ona eman dezakeela baldin eta argiki erabiltzen baldinbada, eta zenbait aldi haren mamia ezagutu gabetarik ere a priori egotziak izan zaizkioten enegu guziak ez dituela. Salburik, hemen ere tamalez 17 liburuki loditan sartuak dira inkesta horren emaitzak, eskuz baizik idatzirik gelditu ez direnak, eta langileen peskizan ez direnak (Bourciez 1936).

Beti ere, Bourciezi esker, eta Bordeleko Akademiako lurretako mintzairen leku-kotasuna bildu nahi zuelakotz dugu hemen aurkezten osatu zuen *Bilduma*-ko euskarazko partea. Segur aski eta gorago erran bezala, gaskoiera bi ardatzen arabera ikertu gogo zuen. Alde batetik ardatz diakronikoa, bestetik ardatz sinkronikoa. Diakroniaren ikusmoldetik eta aipatu dugun Bordeleko mugimendu intelektualari esker, gaskoieraren aditza ikertu zuen lehenik Bordeleko eta Girondoko artxiboetako dokumentuak erabiliz (Bourciez 1890, 1892, 1899). Sinkroniaren aldetik, uste izateko da 1895ko erakusketa unibertsala aitzakiatzat hartu zuela Bourciezek bilketa erraldoiaren egiteko. Ondoko urteetan bilketa hori erabiliko zuen lan geolinguistikoen aurkezteko: adibidez Landesetako «gaskoiera beltza» deitutako aldakiko eremua zehaztu zuen (Bourciez 1897).

Funtsean 1894an Bourciezek *Haur prodigoa* parabolako 4.444 bertsio lortu zituen (haien artean euskarazkoak). Hezkuntza Nazionaleko zerbitzuen laguntza bildu zuen bere xederako eta Akademiako inspekturren bitartez Bordeleko Akademiako errient guziek erantzuna eman zioten. Eta denak inspekturren erantzun ematera behartuak izan ziren, haiek igorri paperetan emana den Pabeko zigilua lekuko, segur aski dokumentu bakoitza bide hierarkikotik igan baitzen, erran nahi baita departamenduko inspektzioaren bitartez. Ez zen hor errient bolondresik edo nahiantik izan. Denek zuten erantzun behar, *nahi ala ez*, parabolako haur prodigoaren aitak seme zaharrarenari erraten dion bezala. Guretako ondorio gaitza izan du horrek: herriarik ez da izan erantzunik fornitu ez duenik. Errient bakoitzari Bourciezek parabolako frantseseko testua helarazi zion eta errient bakoitzaren gain izan zen izendatu-

rik zen herriko mintzairara itzultzea edo itzularaztea. Bilketa horri esker, Bourciezek sare hertsia hedatu zuen herrialde handi batean eta pentsatzen zuen objektu linguistiko asko bildurik egonen zela kopuru handiko bertsio horietan. Eta bidenabar Bourciezen gaskoieraren aldeko kezka sinkroniko hori izan da euskararen probetxu, guk bilduma erraldoi hartatik parte ttipi bat baizik baliatzen ez dugularik.

Errient bakoitzak zer egin ote zuen lan horren betetzeko? Zuzen ez dakigu, baina oro har, emandako lana seriooki egin zutela erran dezakegu. Seriooki, ez beti errex eta ez beti artez, partikulazki Euskal Herrian. Igorria izan zitzaien testua ez zen arras Ebanjeliokoa bera eta ez zezaketen jadanik egindako euskarazko itzulpenik baliatzea. Errientak euskara bazekiularik, segur aski bera izendaturik zen herriko jende bati galdegin ziokeen nola itzul bertako euskaraz. Testu zenbaiten komentarioaren arabera, herrian euskarari buruz aditutzat hartua zen norbaitengana joan zen erriantik izan zen. Gutitan gertatu zen errientak bera izendatua zen herriko euskara ongi ezagutzea, hala nola bere herrian izendatua zen errientak, eta hark ez zukeen hainbeste kezkarik ukan erantzuteko, alfabetatua zen ber. Besterik zen errientak euskaraz mikorik ez zekiularik. Noren laguntza izan zuten gehienetan ez dute erraten. Halere ikus daiteke laguntzailearen izena ematen dutela kasu batzuetan. Adibidez, erraten du Azkarateko errientak, Larroque izenekoak, itzulpena Larratapé deitu herriko etxekojaunarekin egin duela. Donibane-Garazin, Esprabens errientak itzulpena bi aldiz ematen du, lehenik bere izenaz firmaturik eta bigarrena herriko kontseilari den Haranburu jaunaren izena emanez.

Gutitan irakurtzen dira bilduman itzulpenaren egiteko moldeaz Ainhize-Monjoseko errientak eman xehetasunak. Horra zer dioen:

J'ai traduit d'abord le morceau moi-même. Ensuite j'ai lu la traduction quatre fois devant plusieurs personnes de la commune, en la corrigeant chaque fois suivant leurs observations. Enfin je l'ai lue à une personne âgée n'ayant jamais quitté la commune et réputée comme parlant très bien le basque; celle-ci n'a plus trouvé rien à changer. J'ai donc la certitude que le basque que j'ai écrit est bien celui qu'on parle dans la localité./Testua nihauk itzuli dut lehenik. Gero itzulpena lau aldiz irakurri dut herriko jende zenbaiten aitzinean, egiten zizkidaten oharren arabera zuzenketak ematen nituelarik. Azkenik, herritik sekula joan ez den eta euskara oso ongi ematen duelako fama duen jende zahar bati irakurri diot; hark deus kanbiatzekorik ez du ediren. Beraz, segur eta fida naiz idatzi dudana euskara hori herrian mintzatzen den hura bera dela.

Baziren hain ximenki ari izan ez ziren errientak. Batzuetan errientak jokatu zuen etxeko lanaren egitera behartua den ikasle kokinak bezala: bestek egin testua kopia-tuz osoki. Horrela esplikatzen da adibidez 1268. (Donapaleu) eta 1269. (Donapaleu ere) testuak kasik berberak izatea, lehena Maigret errientak izenpeturik eta bestea Donapaleuko Aguer-Achal jaunak. Xehetasunetan sartuz geroz, bi testuak elkarretik bereizten dituzten *ñabardurak* altxatuko ditu irakurleak (*mithilal muthila*, *pounitultul punitu*, *vestal vestat*, *edoleddo* etab.) baina ohartzen da luma bakar batek eginak direla bi testuak, ezaugarri endemikoak eta guzi: *hartiko* (ez **hartuko*), *ezari* (ez **eza-rrri*). Zernahi gisaz, makur handirik ez du ematen bikoizteta horrek bi testuak Donapaleuren kondu ekarriak direlakotz. Piesago da ondoko kasua, 1303. (Bunuze) eta 1305. (Hozta) herrietako testuetan, jadanik beste nonbait erakutsi genuen bezala

(Videgain, 1989, 35-38). Eskola Normaleko kideen solidaritateak edo elkartasunak pusaturik, Bunuzeko Sagaspe errientak bere testua prestatu bide zion Hoztako Loustau errientari, ikusten baita azken hau (gaskoina ote eta ez euskaldun?) izan zela Sagasperen testua kopiatu zuena, batzuetan oker kopiatu ere, zer kopiatzen zuen ez zaki keelakotz: testuko azken partean (nekadura lagun?) *lehin* idatzi du, eta ez *leben*, *ehaztin* eta ez *ehaztun*, *bezta* eta ez *besta* adibidez. Hemen ere makurra ez da handia Bunuze eta Hozta bi herriak elkarren hurrari izanki. Baina beste kopiatze nabarmenik ez dugu ikusi bilduman gaindi (so egin halere hurrunago aipatu 1273, 1274 eta 1275 testuei), salbu 1210 eta 1211 testuak, biak Uztaritzekoak eta biak berak.

Badira bi bertsiio eskaintzen duten herriak (gaineke kasuez gain) hala nola Izurak (1311 eta 1312) adibidez. Hor nolazpait diakronia sartu nahi izan zukeen erriente batek, alde batetik postuan zen Jauréguy izeneko errientak bertsiio «normala» sartu baitzuen, eta bestalde 1312 dokumentua, B. Primorena deitutako errientak egina. Bidenabar, erran dezagun Primorena hori izan zitekeela Azkuek bere kantutegian aipatzen duen Bertrand Primorena Amikuzeko berri-emailea (Azkue, 1922). Beti ere, Bourciezen bildumaren arabera, Primorena hori ez zen amikuztarra baizik eta izuratar. Egia da Domintxainen erriente zela eta haren firma bi tokitan agertzen da bilduman. Ber egunean, hots 1894ko abendu 31n, bi bertsiio sinatu zuen, bata Domintxainekoa (1283) eta beraz bestea, Izurako bigarren bertsiioa (1312), Izuran sortua zela berak idatzi baitzuen testua eman aitzin: *traduction en Bas-Navarrais d'autrefois; idiome d'Ostabat, où le traducteur est né*. Haren testua zertan den Jauréguyrena baino lehenagokoa barnagotik ikusteko ez da hemen lekurik. Ageri da, adibidez, alokutiboa guziz kendua zuela bere Izurako testutik (Domintxaineko bertsiioan utzi du) eta lexikoan hitz «garbiagoak» edo zehatzagoak bilatu zituela. Orogen buru iduri luke testua Primorenak eraiki zuela Jauréguyren testua oinarritzat hartuz. Horra adibide batzuk, zeinetan lehen hitza Jauréguyrena baita eta bigarrena Primorenarena: *sosal/dihuru; maleous/dohacabe, pounitia/gaztigatia, vesta/barneco, çapataloski, chakourekini/ihiz'horekin, youramentouka/arneguz, erepostou eman/lihardesten, kontentamendouz/bozcarioz, alegueratou/bozcariatu, hatzemanal/idiena (= ediren)*. Ikusten den bezala, *Bas-Navarrais d'autrefois* edo lehenagoko euskara aipatzen zuelarik, nolazbait adierazi nahi zuen Primorenak (ala Jauréguyk?) lehenago denboretan hobeki moldatutako euskara erabiltzen bide zela bere denboran baino.

Iholdin ere badaude bi testu, 1299a eta 1300a. Lehena Amigarat deitu erriente egina da, bigarrena aldiz beste norbaitek egina eta horrela dio testuak: *Parabole de l'Enfant prodigue racontée à la veillée, en basque, par un brave vieillard, ménétrier*, erran nahi baita parabola hori soinu-jole xahar batek hats batez kontatu zuela. Eta egia da ez zuela fidelki itzuli, eta edergailu gisa edo funtzio fatikoa indartzeko elementu zenbait sartu zituela delako soinu-jole zaharrak, itzulpen hutsa baino luzeagoko testu interesgarria eskaintzen baitigu. Hark asmatuak dira besteak beste, *béré jiten zitzacona* egitura, genitiboa erabiltzen baitu prolatiboaren adierazteko (*beretako, beretzat*), edo eta ez *baizion sinhets* aditza **iron* aditza (*ziroen*) baliatzen baitu, eta *arno* hitza bakarrik itzuli gabe zerrenda luzatzea *mahats arno, sagar arno, pitar eta minata* aipatuz. Itzulpen xoil izan gabe, bertsiio egokitua egin zuen gure soinulariak eta bildumari neholako makurrik ez dio ekartzen.

Beste errepikapenak ere agertzen dira baina erran daiteke azalekoak direla, desberdintasun ortografikoak direlakotz. Arberatze-Zilhekoko kasuan ere bi testu ager-

tzen dira, bata 1273a eta bestea 1274a, biak Menvielle errientak firmaturik. Testu batetik bestera kanbiantzen den gauza bakarra ortografia da. Lehenbiziko testuan (1273) frantsesaren arabera ari da *orthographe et sons français autant que possible* jarraituz eta horrela hasten da: *Guiçon batec etcitien bi sémé bécic*. Bigarren testuan (1274) beste arau bat jarraitzen du: *orthographe et sons propres à la langue Basque*. Horrela hasten da: *Gizon batec etzitien bi seme bezic*. Gertatzen da ondoko testuan, 1275an, Arboti-Zohotakoan berriz agertzen dela euskararen arabera egin 1274 testuaren kopia. Arboti-Zohotako errientak M Goyheneix zuen izena eta uste izateko da testua auzoko herrian bildu zuela Menvielleren eskutik. Ahatik hitz bat aldatu du tituluan berean. Menviellek Arberatze-Zilhekoan *prodigoa* erabiltzen duen tokian, Goyheneixek *igorlia* ematen du Arboti-Zohotakoan.

Ortografia dela eta, 1278 eta 1279 testuetan, Behauzeko errientak, Istebot izenekoak, bi itzulpen ematen ditu, lehena frantses alfabetuaren arabera eta bigarrena beste alfabetu baten arabera, zeinetan «*chaque son est représenté par un signe unique*», erran nahi baita *soinu bakoitza zeinu bakar batez ordezkaturia baita*. Baina ortografiaz kanpo, bi testuak elkarren kopia dira.

Irakurlea ohartuko den bezala, itzulpenen ondotik, errientak eman du anitzetan komentario bat. Hor gehienetan ageri den arrangura nagusia ortografiarena da eta ez hainbeste joskeraren edo hitz-ordenaren kezka. Gutitan dituzte aipatzen itzulpen-gintzak berak eman oztupoak: askotan aldiz ortografiatzko dudak. Erran gabe doa frantseseko ortografia oinarritzat hartzeak ondorioz baduela. Hortik dator adibidez hainbeste testutan azentua markaturia izaita *e* bokalaren gainean: *béré* idazten du errient askok, trema bat ere diptongoaren berri emateko: *aita*. Kontsonanteetan, txistukariak dira gehienik aipatzen dituztenak. Horra adibidez F. Lolou Etxebarreko errientak dioena: *Le s en basque, a deux sons distincts: le son sifflant, qui est représenté par s, et le son doux, correspondant au ç français, rendu par z*. Hitz berberak ematen ditu Hastoy Lexantzüko errientak, horrek adieraztera ematen duelarik elgar mintzatu zutela edo ber iturria izan zutela. Euskarazko «s» soinuaren ongi ahoskatzeko errienteak ematen dituzten aholkuak ez dira guti eta ematen duten ereduak ez zaio beti fonetikari jarraitzen. Horra zer dioten Aloseko errientak: *La lettre s a un son particulier qu'on obtient en appuyant le bout de la langue au palais; ce son imite le sifflement de l'oie en colère. [S letrak soinu berezia badauka eta haren kausitzeko mihi-punta bermatu behar da sabaiaren kontra: soinu horrek egiten du samurturik den antzararen huxtua.]* Baina egiari zor zaio erraitea horrelako irudi ezezkorrak gutitan baizik ez direla agertzen bilduman: oro har, euskararen ortografiaren historiaren ikertzeko ekai interesgarri ematen dute hiru probintzietako errient horiek.

Guziz bereziak dira, bestalde, beste bi kasu, Anhauzekoa eta Ozazekoa. Anhauzeko testuak (1318) itzulpen harrigarria ematen du. Horra nola itzultzen duen lehen perpausa: *Un homme n'avait que deux fils*. Horrela dio haren testuak: *Batec guizon et zitin baicic bi seme*. Ikusten da frantseseko perpausa nolazbait euskaraz itzuli duela baina frantseseko ordena batera hunki gabe. Gauza bera ageri da Ozazen 1357 testuan, eta hauxe dakar itzulpenak: *Bat guiçon ess sian baicic bi sémé. Haboro gastinac éran sian béré aitari*. Errienteak ez dute erraiten zergatik horrela lotu diren lanari.

Arrisku zen ere errientak kontuan hartzea ez herriko euskara baina beste nonbaitekoa, hala nola *koine* batetik hartutako formak, edo prestigioko formak, adibidez Lapurdikoak. Egia errateko ez da anitzetan gertatu, baina herri batean, Pagolan hain

zuzen, han zegoen Abadie errientak eman testuak ez du Pagolako euskararen urrinik, nahiz ez den halere Lapurdiko euskaraz moldatua: *zion, ilhargia, unhatzen, dezaion* formek testu endemikoa ez dela salatzen dute. Alde horretatik Pagolako testua ez da batere fidagarri eta geolinguistikoaren aldetik beste testuak baino askoz ahulagoa da. Beste herri anitzetako bertsioetan ere Lapurdiko forma batzuk nagusitu zirela ikusten da, bereziki aditzean eta oro har morfologian. Amenduzen *neure* eta *haiz, naiz, diot* formak ez dira bertakoak baina ber testuan agertzen dira ere *niz, zakon* edo lexiko mailan Amikuzeko den *guitac* («ahateak») bezalako hitzak. Guziz normala da horrelako kontaminaziorik agertzea eta Bourciezek baliatu metodologiatik ez da baitezpada etortzen, beste inkestagintza motetan ere *artefact* anitzen eragina biltzen delarik.

Hitz bat testuen itxuraz. E. Bourciezek bildu testua errient bakoitzak eskuz idatzia igorri zuen, iduriz letrak eta izkiriatzeko moldeak ahal bezain ongi apainduz: garai hartako esku-idazkeren erakusketa ederra ikus daiteke bilduma honetan eta liburu honekin batera datorren CD-ROMak testu guzien facsimile bat irakurleari eskaintzen dio. Gaurko egunean boligrafoz (edo ordenagailuz) idazten ari garenek mirets genezake, adibidez, Arrangoitzeko, Donibane-Lohizuneko, Ustaritzeko, Halsuko, Ainhize-Mongeloseko, Atharratzeko, Larraineko, Barkoxeko eta beste leku anitzetako kaligrafia zaindua.

Bilduma departamenduka eta kantonamenduka antolatu zuen Bourciezek orduko sistema administratiboaren arabera eta Basses-Pyrénées-etako departamenduko herriak jarraian eman zituen, guti edo aski itsas-hegitik ekialdera joanez. Baionako arrondizamenduan sartzen dira Baionako, Donibane-Lohizuneko, Ustaritzeko, Hazparneko, Ezpeletako, Bastidako eta Bidaxuneko kantonamenduak. Mauleko arrondizamenduan sartzen dira Mauleko, Donapaleuko, Donibane-Garaziko, Iholdiko, Baigorriko eta Atharratzeko kantonamenduak. Ondorioz, Zuberoako herri guziak ez dira denak elkarren segidan ematen, Mauleko eta Atharratzeko kantonamenduen artean (frantsesez Mauléon eta Tardets-Sorholus) beste Baxenafarroako kantonamenduak baitaude. Herri bakoitzeko bertsioak bere zenbakia badu, Bourciezek berak emanik.

Hemen euskarazko testuak baizik ez ditugu argitaratzen eta badira administratiboki Euskal Herrikoak diren herriak gure lanean agertzen ez direnak, gaskoierazko bertsiorik baizik ez baitzuten bildu errientek, hala nola Baionan, Biarritzen edo Basusarrin. Aldiz, Oloroneko kantonamenduan dagoen Eskiulan euskarazko testua bildu zuen herriko semea zen Urrutigoiti errientak. Artetik errateko, errient horrek euskara laket eta haren kahierak baliatu zituen Haritschelhar jaunak Etxahunez obratu tesi ezagunean. Guhauk *Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren* inkestean egiten ari ginelarik, Urrutigoitiren postua hartu zuen Orbiscay errient-ohiaren ezagutzeko parada izan genuen eta Eskiulako lekuko argia eta amultsua izan genuen. Biek, Urrutigoitik nola Orbiscayk, errient-karrera guzia lehen egunetik azken egunera beren herrian eraman zuten beste nehora joan gabe, erran nahi baita kasik chun urteko katea osatu dutela bi gizonak, estaduko funtzionario eta euskararen defendatzaile leial egonez. 1985eko Eguberri egunean zendu zen Orbiscay jauna gure Zuberoako azken lekukoa izan da *ailedi* edo *ailleza* bezalako formak eman dizkiguna.

Dagoen bezala, uste dugu *Bilduma* honek berri interesgarririk ematen duen Lapurdiko, Baxenafarroako eta Zuberoako euskarari buruz. Orain arte, ez zen errex

testu horien eskuratzea eta irakurtzea. J. Allières lehena izan zen lan pollita egin zue-na bilduma honetatik mapa komentatuak osatu zituelarik (Allières 1978). Haren ondotik beste mapa andana bat egin gogo dugu Parabolaren testuak nahiko item emaiten baitu lexikoaren, morfologiaren eta joskeraren aldetik beste lan baten obra-tzeko datozen hilabeteetan.

Bibliografia

- ALLIERES, J., 1978: «Petit Atlas linguistique basque français Bourciez 1, (20 cartes commen-tées)», *Fontes Linguae Vasconum*, 27, 353-386.
- AZKUE, R.M., 1922: *Cancionero popular vasco*, 2 liburuki, Barcelona, Boileau & Bernusconi.
- BOURCIEZ, E., 1886a: *Les mœurs polies et la littérature de cour sous Henri II*, Paris, Hachette.
- BOURCIEZ, E., 1886b: *De praepositione AD casuali in latinitate aevi Mérovingici*, Paris, Klincksiek.
- BOURCIEZ, E., 1889: *Précis de phonétique française*, Paris.
- BOURCIEZ, E., 1890: «La conjugaison gasconne d'après les documents bordelais», *Annales de la Faculté des Lettres de Bordeaux*, II-III, 196-225.
- BOURCIEZ, E., 1895: «Introduction au Recueil des Idiomes de la Région Gasconne», *Revue des Pyrénées France méridionale*, 321-324.
- BOURCIEZ, E., 1897: «Contribution à l'étude du son α landais», *Actes du Congrès international des langues romanes tenu à Bordeaux (5-10 août 1895)*, Bordeaux, Féret, 93-104.
- BOURCIEZ, E., 1910: *Éléments de linguistique romane*, Paris.
- BOURCIEZ, E., 1936: «Le domaine gascon», in Actes du 4^{ème} Congrès international de lin-guistique romane (Bordeaux 28 mai 1934), *Revue des langues Romanes*, XII, 1-9.
- LUCHAIRE, A., 1879: *Etudes sur les idiomes pyrénéens de la région française*, Paris, Maisonneu-ve.
- LUCHAIRE, A., 1881: *Recueil de textes de l'ancien dialecte gascon d'après des documents anté-rieurs au XIV^e siècle*, Paris, Maisonneuve.
- VIAUT, A., 1995: «Bourciez et les études gasconnes», in *L'ethnologie à Bordeaux. Hommage à Pierre Métais*. Actes du colloque du 10 mars 1994, Département d'Anthropologie Socia-le-Ethnologie/Centre d'Etudes et de Recherches Ethnologiques/Université de Bordeaux II, 109-128.
- VIDEGAIN, Ch., 1989: *Le vocabulaire de l'élevage en pays d'Ouztibarre. Contribution aux archi-ves de l'oralité basque*, (doktoradutzako tesia: zuzend. J. Haritschelhar & J.L. Fossat), Université de Bordeaux III, ez argitaratua, 2178 or.

3. «RECUEIL DES IDIOMES DE LA RÉGION GASCONNE» BILDUMAKO EUSKAL TESTUAK

1193

Commune de Lahonce
Canton de Bayonne Nord-Est

Haür galduya

1. Gizon batec etzutitzun bi seme beïcic. Gastenak erran çakozun: «Ordoïzu izannaïn ene naussi eta ukhan deçaan diruya. Behar dizut yuan hemendic eta ikhussi herriac. Parthi zazu çure onthasuna eta emazut behar dudana. – Bai, ene semia erraintein dizu aïtac: nahucan bezala. Gàischtua hiz eta punituya izaanhiz.» Gero idekizian tieta bat partayatu zizun bere onthasuna eta egin zizun bi parte bardinac.

2. Çoinbeit egun bakharren buruyan, seme gàischtua yuan zuzun herritic handian einex eta adio erran gabe nehori. Treesatu zititzun anhitz larre, oïnhan, ur eta heldu hiri handi bateta, nun चाहutu baïtciin bere diru gucia. Çonbeït hilaaten buruyan, saldu behar izan zititzun bere arropac, emaste zahar bati eta yuan muthil: iorri zizien astuen eta idien zaïn.

3. Orduyan izan zizun arras maluus. Ez zizun oheik gehio gabaz lo eiteco, ez eta suïc hotz zenian beotzeco. Haïn gosse handia zizun çoinbeït aldiz nun yan baïzukeen urdek yaten tusten aza hosto eta früitu ustelac; baïnan nehoc etzacon deüsic emaiten.

4. Gaü batez, sabela hutsa, eortea utzizizun bere buruya alkhi baten gaïnea, behatzen ziilaïc leïhotic chorierrri arinki yohan zienac. Gero ikhussi zizun agercen ceruyan argizaria eta izarrac eta erran zizun niarrez çaolaïc: Han, ene aïtaan etchia be-thiaüc muthilez çoinnec baïtute ogia eta arnuia, arrolziac eta gasna, nahuten becinbat; denboran berian, ni, hemen gossiac hilcen haïniç.

5. «Untsaüc, yeikico nuc, yuaïnuc aïtan hatcemaïtea eta erranen zakoyat: Eïn nizun bekatubat zu utzi nahi izan cintuanian. Falta ukhan nizun handia eta behar nuzu punitu, baakizut untsa. Ez nezazula deït zure semia; trata nezazu zure muthiletaïc azkena beçala. Faltadun izan nuzu, baïnan urzen haï nintutzun zutaïc urrun.»

6. Aïta baatzian zuzun akhabatzen ziina bere lilien ihistarcia: beha zaozun bere saarronduerri eta mahatserri. Ikhussi ziinian heldu bidian gaïnian bere semia estalia

herraütsez eta icerdiz, zangua herrestan, doï doya sinhetsi zizun. Galdegin zizun bere buruaï heiya beharzankon eman punimenduya ala barkamenduya..... Azkenian, nigarrac begietan hedatu zaïzkhotzun besuac eta harren lephoa eroriz eman zaïzkhotzun pot handibat.

7. Gero yarraazi zizun bere semia deïthu bere yendiac eta aüsuac: «Maïtatu nahi zitut aïntcinian bezala, haür gaïchua, erran zayoten bildu orduko. Aski punituya izan duzu: oreï nehoc ez dezola erran hitzic. Zaïste ikhustea; ekharzazie harrentzat laster yelete pulli bat, emakozie erhaztun bat erhian: eta zapeta berriac zanguetan. Hartuco ahal ducië çoïnbeït oïlar, ahate, eta aatchebat hilceco ondena: yuan gié edatea yatea elgarrekin eta égitea pesta handi bat.»

8 Muthilec obeïtu zizien bere naüssiaï eta eman zizien dafaïla ederbat mahaïian. Memento bereian, seme saharrena heldu zuzun ihicitic bere chakurrekin: «Cerde bada harrabots hoï? Oïhu egiten dizu yuamentuz. Usteïzut cantatzen duziela hemen; ez duzu goïceï yin nadin. Zorua zie ene aïta?»

9. «Ez, ene semia, ez nuc hala erran zakozun zaharrac. Hoï eïten balinbaüt eïten diat ceren nizen bozkalenciaz bethia. Cantatcen diuk eta iruz gituc ceren badiüc certaco. Nahi baüc eta ez baüc hic è cantatu beharduc eta placer hartu guekin: ceren eta hire anaya hilcena yin baïta bicira. Sortcetic heldu balitz bezalaüc: atzo galduya çuyan, eün horra hatcemana.»

Notes:

- E. L'e basque n'est jamais muet comme en français, il est moyen plutôt fermé qu'ouvert.
- U. L'u se prononce comme ou.
- C. Le c basque a le même son que le c français devant e et i. Le c devant a, o, u a le même sens que le k.
- G. Le g est guttural.
- K. Cette lettre remplace le q.
- N. Cette consonne est toujours forte au milieu et à la fin des mots.
- S. La prononciation du s basque ne ressemble en rien à celle du s français. Pour bien prononcer la sifflante du s basque, au son plein et nourri, il faut appuyer le bout de la langue derrière les dents supérieures, sur la gencive, vers le palais de la bouche et la faire siffler dans cette position.
- Z. Cette consonne remplace très bien le ç.

Dans la langue basque, presque tous les mots sont terminés en a. Cette voyelle a la même valeur que l'article français.

SOUBIE F.

1194

Commune de Mouguerre
Canton de Bayonne Nord-Est

Haur prodigoa

1. Guiçon batec ez çuen bi sémé baicic. Gastenac erran cion béré aitari: «Dem-bora da ičan nadin éné nausi eta ičan deçadan dirua. Behar da yuan ahal nadin eta ikus deçadan herri. Parti caçu ontassuna, eta emadaçut nic behar dudana». «Bai, éné séméa, erran çuen aitac; nahi dukan beçala. Gaisto bat haiz eta punitua ičan haiz». Guero idekitcen duelaric tiroir bat, partitu çuen béré ontassuna eta eguin cituen hortaric bi pharte bardinac.

2. Egun gutiren ondoan, sémé gaistoa yuan cen herritic fierrarena eguiten cularic, eta adioric nihori erran gabé. Passatu cituen hainitz larré, oihan, ur eta yin cen hiri handi baterat nun chahutu baitçuen béré diru gucia. Cembeit hila-betheren buruan saldu behar ičan cituen béré puskac emasté chahar bati eta béré burua, allouatu mutil icaiteko: igorri çuten landetarat astoen eta idien caintçeko.

3. Orduan, arras malhurus ičan çen. Ez çuen guehiago ičan oheric lo eguiteco gabas, ez suic beherotceko hotz hari cenean. Cembeit aldiz hain gosé handia çuen yanen baitcituen assa hosto hec eta cherriec yaten dituzten fruitu ousteldu hec; bainan nihorc ez cion deus emaiten.

4. Gau batez, tripa hutsa, utçi ičan çuen béré burua erortcerat kayola baten gainerat behatcen çularic leihotic arinki bolatcen ciren choriac. Guero ikussi cituen aguertcen ceruan ilharguia eta içarrac, eta eran çuen béré buruari nigarrez: Han, éné aitaren etchea bethea da sehiz çoinec baituté oguia eta arnoa, arroltzeac eta gasna, nahi duten baicembat. Dembora hortan, ni goseac hiltcen hari naiz emen.

5. «Eh bien, chutituko naiz yuanen naiz ene aitaren hatchemaiterat eta erranen diot: Bekatu eguin nuen utci nahi ičan cintudanean. Hutz handia eguin nuen eta behar nauçu punitu badakit ontsa. Ez neçaçula deith guehiago curé séméa, trata neçaçu curé azken mutila beçala. Hobendun ičan naiz, bainan peritcen hari nintcen çutaric urrun».

6. Aita béré baratcean cen, béré lilien arrosatcen finitcen; bisitatcen cituen sagar ondoac eta mahatsac. Ikussi çuenean yiten bidean béré séméa dena icerdiz eta her-rautzez estalia, sango bat herretzan doidoia sinhets ahal ičan çuen. Galdatu ičan çuen béré buruari behar çuen punitu edo behar cion barkatu... Enfin, nigarrac be-guietan hedatu citation besoac, eta audikitcen celaric haren lephorat eman çion pot handi bat.

7. Guero yararaki çuen béré séméa deithu cituen béré yendeac eta auçoac: «Maithatu nahi dut lehen beçala haur gaicho erran cioten heldu cireneco. Aski punitua ičan: nihorc orai ez dezola eguin erreporchu bihi bat. Çatozté ikusterat; eka-roçue fite besta eder bat; emoçué erezun bat erhian eta çapeta berriac sangoetan. Hartcen ahalco ditutçué éré oilarrac, ahateac eta ekartcen aratché on bat hiltçeko: edan behar dugu, yan elgarrekin eta eguin phesta handi bat.»

8. Mutilec obeditu çuten béré nausiari eta eman çuten nappa eder bat mahai-nean. Memento berean sémé çaharrena heldu cen ihizitic béré chakurrekin: Cer da bada harrabost hori? oiheu eguin çuen yuramentuz hari celaric. Uste dut cantatcen duçuela hemen; ez da goizegui yin nadin. Soroa çare éné aita?»

2. Handic egun laburen barnian, seme gachtoa juan zen herritic fier éguiten zuelaric, eta nehorì adioric eran gabe. Pasatu zituen frango phatar, oihan, uhaitz, eta jin zen hiri handia batea, non despendiatu beitzituen bere sos guciac. Zembait hila-beteen burian, behar izan cituen bere phildac emaste chahar bati saldu eta sehi plazatu: igorri zuten astuen eta idien zaintcera alhoreat.

3. Ordian, hainitz malerous izan cen. Ez çuen izatu guehiago oheric gauaz lo eiteco, ez eta suic berotzeco dembora hots cenian. Haimbertzetaraino zen gosetia zembait aldis, non janen baitzituen urdec jaten ditusten asa osto eta fruitu usteldu hec; bainan nehorc ez çacon fritzic emaiten.

4. Gau batez, sabela huxic, utzi cen erortzera cacheta baten gainera, so zagolaric leihotic estiki hegaldatzen cien choriet. Guero ikhusi zuen ceruan aguertzen arguicaitia eta içarrac, eta eran zuen bere baitan nigarrez çagolaric: 'Hantchic, ene aitaren etchia bethia dago sehiz zoinec baituzte nahi duten oguia, arnoa, araultziac eta gasna. Dembora berian, ni, gosez, hiltzen nago hemen.

5. Eh bien, chutituco naiz, juanen naiz ene aitaren causitza eta erranen dacot: Bekhatu eguin nuen, zu utzi nahi izan nuenean. Oguen handia izan nien, eta behar naizu gastigatu, ongui badaquit. Ez naizazula guehiago deitha zure semia; trata neza-zu zure ondar sehiaren pare. Culpaldun izan nintzan; bainan zutaric urun, péitzen ari nindagon.

6. Aita baratcian zagon, bere loren ihistatziaren acabatzen; so eguitera juana zen sagar onduer eta mahatser. Ikhusi zuenean heldu bidian bere semia dena icerdi eta erhautzac hartia, sangoa herrestan, nekez erebenitu zen. Iragan zuen bere baithan zer eguin behar zacon, gastigatu edo barkhatu. Ondareat, nigara beguietan, besoac hedatu zacson, eta lephotic lothuric, eman musu handi bat.

7. Guero jarraaci zuen bere semia; bilaraci zituen bere jendiac eta ausuac: «Nahi dut lehen bezala maithatu haur gachoa, eran cioten, elgartara bildu ondoan. Izan da frango gastigatia: nehorc eztezacola eguin, orai dremendaren ereprotchuric. Çatoste hunen ikhustera; ekharacozie fite casaca pullit bat; ezaracozie erhastun bat erhian eta sapata beriac sangoean. Bilhatzen ahal dusquetzié oraino oilarac, ahatic eta ekhar-tzen aetche on bat hiltzeco: janen eta edanen dugu elgarrekin eta phesta handi bat eguinen.

8. Schiec sinhetsi zuten beren nausia eta eçarri dahaila eder bat mahayaren gainian. Ber demboran, seme guehiena heldu zen ihicetic bere chacurekin; zer da beaz

açantz hau? oihu eguin zuen sacrecaz. Uste dut khantuz ari cizten hemen: ez da goizegui ene guibelerat itzultzia. Erhotia cirea, ene aita?

9. Ez, ene semia, ez nuc hala, erepostu emaiten du zaharrac. Hori eguiten badut, alagrantzian nizalacos duc. Khantatzen diagu eta urus gutuc, zeren badiagu eguiaski certaz. Nahi ala ez nahi, beharco duc khantatu hic ere, eta gurequin alagueratu, ceren eta hire anaya hila zelaric, ara phistu baita. Beriz sorthu balitz bezala duc: atso galdia zucan; egun, hora, non den beriz idirena.

L'Instituteur de Saint-Just-Ibarre,

JAURÉGUY.

* * *

1314

Commune de Suhescun

Canton d'Iholdy

Haur Prodigua

1. Guizon batec ez zituen bi seme (1) baicic. Gaztenac erraiten du bere aitari: «Ordu da izan nadin neure nausi eta ukhan dezaan diru. Yuan ahal izan behar naiz eta behar dut bazter ikhusi. Pharte zazu zure ontasuna eta eman ezadazu behar dudana. - Ba, ene semia, erraiten du aitac; nahi dukan bezala. Gaichto bat hiz eta gaztigatia izanen hiz». Guero idoquitciarekin tiranta bat partitu zien bere ontasuna eta eguin zitien bi pharte bardinac.

2. Egun gutiren onduan, seme gaichtua yuan izan zen herritic eguinez ascarrarena eta erran gabe adio nehorri ere. Phassatu zituen hanitz larre, oyhan, ur, eta heldu zen hiri handi batera, nun chahutu baitzuen bere diru guzia. Çombait ilhabeteren buruan behar ukhan zitien saldu bere arropac emazte zahar bati eta soldatan yarri sehi izaiteco: igorri zuten alhorretarat han beguiratcera asto eta idi.

3. Ordian izan zen arras malouros. Ez zien guchiago oheric lo eguitemo gauaz, ez eta ere suic berotceco hotz eguiten zienian. Çombait aldiz hain gose haundia zien nun yanen beicituen unxa aza hosto eta fruitu usteldu urdec yaten dituzten hec, bainan nehorc ez zacoten deus emaiten.

4. Gau batez sabela hutsic uzten du bere burua erortcera alki baten gainera, so zagolaric leihotic airian ahinqui zabilñan chorier. Guero ikhusi zuen aguertcen zerruan arguizaguia eta izarrac, eta bere buruari erraiten du nigarrez: Hantche, ene aitaren etchia bethia da sehiz zoinec baitute ogui eta arno, arrautce eta gasna, nahi duten bezainbat. Denbora berian ni gosiac hiltcen ari nau hemen.

5. «Eh bien, nahi naiz yaiqui, yuanen naiz edireitera ene aitaren eta erranen dacot: Eguin nien bekhatu, zu utci nahi izan zintudanian. Obendun handi nintzan eta behar nauzu gaztigatu, badaquit onxa. Ez nezazula guehiago deit zure seme, trata

nezazu zure azken sehia bezala. Obendun nintzan, bainan hiratcen nintzan zure ganic urrun.

6. Aita zen bere baratcian, lilien ihizatcen finitcen: bisitatcen zitien sagar onduac eta mahatsac. Ikhusi zienian yiten bidiaren gainian bere semia oro estalia izerdiz eta erhautsez, herrestan zangua, doï doya sinhetsi ahal ukhan zien. Bere buruari erran zuen gaztigatu behar zuenez ala behar zayon barkhatu... Guerocotz, nigarrac beguetan, hedatcen dazco besuac eta yauzi eguiten dacolaric lephora eman zacon pot handi bat.

7. Guero yar arazi zuen bere semia; deitcen tu bere yendiac eta auzuac: «Nahi dut maithatu aitcinian bezala, haur gaichua, erran zeren bildu zireneco (2). Aski gaztigatia izan da; nehorc orai ez dezola eguin errepotchuric batere. Zaurte ikhustera, fite ekhar ezozie besti poillit bat, ezar ezozie erartun bat erhian eta zapeta berriac zanguetan. Hartcen ahal tuquezie ere oillar, ahate eta ekhar aratche bat hun dena hiltceco: edanen, yanen dugu elgarrequin eta eguinen besta handi bat».

8. Sehiec obeditcen dute beren nausiari eta ezarri zuten mahainaren gainian da-faila eder bat. Memento berian seme guehiena yiten zen ihizitic bere chakhurrequin: «Cer da beraz azantz hau? Oihu eguiten du yuramenturequin. Uste dut cantuz ari ziezuela hemen, ez da goizegui yin nadin. Erhua zirea ene aita?».

9. Ez, ene semia, ez nuc hala, errepostu emaiten du zaharrac. Cantatcen diagu eta uros gutuc, ceren baitugu zertaz. Nahi ukhan dezakan ala ez beharco duc hic ere cantatu eta gurequin alagueratu, ceren eta hire anaya hila zena baita bizirat itçuli. Sorthu baliz bezala duc: atzo galdia zian, egun horra non den hatcemana.»

DUHALDE

Notas

- (1) La lettre (e) se prononce comment e femé.
- (2) Lisez bildu zireneco

* * *

1315

Canton de St. Etienne-de-Baïgorry
Commune de St. Etienne-de-Baïgorry
Haour barréatia

1. Gizon batek etzitîn (ez zitièn) bi sémé bézik (baïzik). Gazté'nak érran zîn (zien) béré aitari: «Ordou da néouré yabé izan naïn (nadin) éta dirou izan dézân (dé-zadan). Behaout (behar dout) youan ahal éta kampo ikhousi. Zathi zazou zouré on-

tasouna éta émâzou (éma-dazou) zer éré béhar baïtout. - Ba, éné sémia (séméa) érran zîn (zièn) aïtac; nahoucan (nahi doucan) bézala. Gachto bat hiz éta gaztigatia izaïnz (izanen hiz)». Gero tirantât (tiranta bat) idékitzen zièla, zathitou zîn (zien) béré on-tasouna éta hartarik éin zitîn (égin zitien) bi zathi berdinak.

2. Egoun goutîn (goutirén) bourian, sémé gachtoua youan zèn herritik bapoua iten zîla (égiten ziéla), éta néhori adio erran gabé. Igân zitîn (iragan zitien) bazter hanitz, oïhanak, hour handiak, eta yin zen hiri handi batétara, noun béré dirou gou-zia chahoutou baïtzîn (baïtzièn). Zembaït hilâtèn (hila bethérèn) bourian béré arro-pak saldou béhar oukhan zitîn (zitièn) emazté zahar bati éta béra acordatou séhi izai-teco: igorri zutén alhorrétarat astouèn eta idien zaïntzéko.

3. Ordian arras dohacabé izan zèn. Etzîn géhió oféik (ez zièn géhiago oférik) gaouaz lo itéko (égitéco), ez sourik hotz iten zîlarik (égitèn ziélarik) bérotzéko. Haïn zen gose zembaït aldiz noun yaïn baïtzitîn gotik (yanèn baïtzitièn gogotik) cherriek yatèn dituztèn aza osto eta frouitou andeatou hek; baïnan nehok (nehorek) etzakon (ez zakon) deous emaitèn.

4. Ats batez, sabéla houtsik, béré bouria outzi zîn (zièn) értorzéra alkhi batèn gainéra, béhatzen zîlaïk (ziélarik) léihotik hégaldaka arinki zabilzan chorier. Gero ikhousi zitîn (zitièn) zérian agertzèn ilhargia eta izarrak, eta béré bouriari erran zîn (zièn) nigarrez: Hanchèt, éné aïtaén (aïtarèn) étchia béthia da séhiz (séhiez) douté-nac ogi éta ano, arrolze éta gasna nahoutèn (nahi doutèn) bézambat. Dembora hor-tan ni gosez hilzen ari niz hémèn.

5. Bada, yeïkiko niz, yuaïn (yuanen) niz ene aïtaèn (aïtarèn) atzemaïtera eta erraïn (erranen) dakot: Bekhatou bat ein nîn (egin nièn), zou outzi nahi izan zintouanian (zintoudanian). Hoben handia izan nîn (nièn) éta behar nouzou gaztiga-tou, badakit ountsa. Ez nézazoula deïth gehio (gehiago) zuré sémia, ibil nézazou zouré séhiétarik azkéna bezala. Hobendoun izan nintzan, baïnan hourtzen ari nin-tzan zou ganik ourroun».

6. Aïta béré baratzian zen béré lorèn ihizatzen akhâtzèn (akhabatzèn) ari: miatzèn zitîn (zitièn) sagar ondouak eta mahatsak. Ikhousi zîlaïk (ziélarik) bidé gaï-nian yitèn béré sémia izerdiz eta herraoutsez déna estalia, zangoua herrestan, doï-doïa sinhetsi ahal izan zîn (zièn). Béré buriari galdeïn zîn (galdé égin zièn) gaztiga-tou béhar zîn (zièn) ala barkhatou behar zakon... Azkenian, nigarrak bégietan, besouak hédatou zazkon, eta haren lephora béré buria botatzen zîla (ziéla) pot handi bat éman zakon.

7. Géro yar-âzi zîn (yar-arazi zièn) béré sémia; deïthu zitîn (zitièn) etchékouak éta aouzouak: «Maïthatou nahïout (nahi dout) léhèn bézala, haour gaïchoua, erran zèn (zeyen) bildou zîneko (zireneko). Askî gaztigatia izan da: nehorek oraï ez deza-kola gaizki bihirik erran. Zaourté ikhustéra; ekhar-ozî zalhou camisola poïllit bat, ezarozî (ezarozié) erasztoun bat erhian eta zapata berri batzou oïnetan. Hartzen ahal-ko tuzî (dituzié) éré oïlar, ahate, eta ekhar hilzeco hun den aratché bat: édanen dugu, yanen elgarrékin eta phesta handi bat éinèn (éginèn)».

8. Shiek obeditou zouten béren naousiari eta ezarri zoutèn dafaïla eder bat ma-hain gaïnian. Ténoré bérian sémé géhiéna itzoulzen zen ihizitik bere chakhour-ekin: «Zer da bada harrabots hori? oïhou ein zîn (égin zièn) youramentouka. Naski khan-touzari zîzté (ziezté) hemen; ez da goïzei (goïzegi) itzoul naïn (nadin). Erhotia ziréa, éné aïta?».

9. «Ez, ene sémia, ez nouk hala, ihardetsi zîn (zièn) zaharrak. Hori iten (egitén) badout, zérèn bozkarioz bethia baïniz. Khantouzari gitouk eta dohatsou gitouk, ezik ba-diouk zérèn. Nahi izan dezakan ala ez, khantatou beharcoouk (beharko duk) hik éré, eta alégératou gourékin, zérèn hiré anéa (anaïa) hila zéna bizirat itzouli baïta. Oraï sorthou baliz bézalaouk (bézala douk); Atzo galdia zian, égoun horra noun dèn berriz hatzémana».

Notes

Dans cette traduction, la langue basque a été écrite comme on la prononce dans la localité; mais les corrections se trouvent dans l'interligne, au-dessus des mots mal écrits.

Dans la langue basque, le son *ou* se représente par *u*; cependant pour nous conformer aux recommandations contenues dans la circulaire de Mr le Recteur, nous avons cru devoir le représenter par *ou*.

Exemples: *haour - ordou - dirou*.

La lettre *g* se prononçant dur en basque, même devant les voyelles *e, i*, nous avons écrit: *gira, géro*, pour *guira, guéro*, etc.

La consonne *z* a le son de *ç*, qu'il se trouve au commencement; dans le corps, ou à la fin d'un mot. Exemples: *zouré, zazou, zoutaz*, etc, qu'il faut prononcer: *çouré, çaçou, çoutace*.

Le son de la lettre *ç* en basque, tient le milieu entre le son de *ç* et celui de *j*. Exemples: *ontasouna, sémé*, etc. La dernière consonne se prononce toujours fort. Exemples: *gizon, baték, izan*, etc, qu'il faut prononcer: *guiçone, batéke, içane*.

L'instituteur de Baïgorry,

BOMBET

* * *

1316

Commune de St-Etienne-de-Baïgorry

Canton de St-Etienne-de-Baïgorry

Haur barréatia

1. Gizon batek ez zitien bi seme bezik. Gastenak dio aitari: «Ordu da izan nadin neure yabe eta diru izan dezadan. Behaut yoan ahal izan, eta herri ikusi. Zati zazu zure ontasuna eta emadazu heldu zautana. Ba ene semia dio aitak, nahidukan bezala. Gachtagin bat hiz, eta kastigatia izanin hiz. Gero idekitzen diela tiranta bat, zatitzen du bere ontasuna, eta hartaz egiten bi zati berdinak.

2. Egun gutiren burian seme gachtoa yuan zen herritik egiten ziela baphoa eta nehorri adiorik erran gabe. Iragan zitien bazter hanitz, oihan, ibaia eta yin zen hiri handibatetara, nun bere diria chahutu baïtzien. Zeimbaït hilabetheren burian, béhartu zen salzera bere soïnekoak emazte sahar bati, eta bere buriaren muthil ezar zera. Igorri zuten alhorretarat asto eta idi zaintzerat.

3. Ordian, arras dohacabe izan zen, ez zuen gehiago oferik gaüaz lo égitéko ez surik berotzeko hotz egiten zielarik. Haïn gose handia zien zeimbaït aldiz nun yanen baïzitian gogotik cherriek yaten dituzten aza osto eta udare usteldiak, bainan nehork etzakon deus emaiten.

4. As batez sabela hutzik utzi zien bere buria erorzera alki baten gainera behatzen zielarik leihotik aïrian arinki zabiltzan chorier. Gero ikusi zitien zerian ilhargia eta izarrak, eta nigarrez erran zien bere buriari: han ene aitaren etchia bethea da sehiz, nahi duten bezambat ogi eta arno, arrulze eta gasna, dutenez. Tenore berian hemen ni gosez hiltzen niz.

5. Bada, yeikiko niz eta yoanen niz aitaren hatchemaitera eta erranen diot: hus bat egin nien, zu utzi zinutalarik; hoben handia izan nien eta behar nuzu kastigatu, badakit untza. Ez nezazula deit gehiago zure seme, ibil nezazu zure azken sehia bezala, hobendun izan niz, bainan zure ganik urrun hebaitzen ari ninzan.

6. Aita bere baratzean zen, bere lilien urtatzia éginik numbaït; ikertzen zituen sagar ondoak eta mahatzak. Ikusi zielarik bidian yiten bere semea arras izerdiz eta errautsez bethea, zango herrestaca, doïdoïa sinetzi zien. Galdegin zien bere buriari kaztigatuko zie ala barkatuco. Azkenian, nigarra begietan, besoak zabaldu zazkon eta haren lephora yoanez eman zakon pot gozo bat.

7. Gero yazarazi zien bere semea deitu zitien etchekoak eta aüzoak; nahi dut maitatu lehen bezala haur gaïchoa erran zioten bildu zireneco. Aski kastigatua izan da nehork orai ez dezola erran gaizki bihirik. Zaurte horren ikustera ekarhakozeu zalu camisola pollit bat, ezarakosie eraztun bat erian, eta oski berri batzu hoïnetan; hartzen ahalko tuzie oïllar, ahate, eta ekar aratché hiltzeko huden bat: edanen dugu, yanen elgarrekin eta ehai handi bat eginen.

8. Shiek nagusiak errana egiten zuten eta mahian eman tafaila handi bat. Tenore berean seme saharena itzultzen zen ihizitik bere chakurrekin. Zer da bada azanz haü? oihu égiten du zin égingez, uste dut kantuz ari ziezten hemen; ez da goizegi sar nadin erodu zirea ene aita.

9. Ez ene semea ez niz hala ihardesi zien zaharrak, hori egiten batut bozkalenziaz bethia nizalacotz kantatzen dugu eta dohasu gira ezin badugu zer. Nahi baduk ala ez, behauk kantatu hic ere eta bozkalenziatu gurekin, zendako hire anaïa hila zena berriz bizitara duk, yaïo baliz bezala; atzo galdia zian, egun horra nun den iragilik.

Traduction de M. Etcheverry.

L'Instituteur de Baïgorry,

BOMBET

1317

Commune des Aldudes
Canton de St-Etienne-de-Baïgorry

Haur prodiga

1. Guiçon batec ez cituen bi seme baicic. Gastenac erraiten dio bere aitari: «Ordu da niauren nausi ičan nadin eta dirua ičan deçatan. Yuan behar niz eta he- rriac ikhusi behar ditut. Parti citçu çure ontasunac, eta emadaçu behar dutana. - Bai, ene semea, erraiten du aitac; nahi ducan beçala. Gaichto bat hiz eta punitua ičanen hiz». Guero tiranta bat idekitcen çuelaric, partitu çuen bere ontasuna eta eguin çuen bi parté berdinac.

2. Çembait egunen buruan, sémé gaichtoa yuan cen herritic, fierra eguinez, eta nehoi adio erran gabe. Courritu cituen hainitz landa, oyhan, hur handiac eta yuan cen hiri handi batera, non despndiatu baitçuen bere diuru gucia. Çombait hilabete- ren buruan, saldu behar ičan cituen bere bestimentac andré çahar bati eta eman be- har ičan cen mutil: igorri çuten alhorrétarat çaintceco astoac eta idiac.

3. Orduan, arras malhurus cen. Ez cuen guehiago oheric lo eguitemo gauaz, ez suric berotceco hotz eguiten cenean. Batçuetan hain gose handia çuén gogotic yanen baitcituen aça ostoa eta fruitu usteldu hec çoinac cherriec yaten baituste; bainan ne- horec ez çion emaiten deusic.

4. Arratz batez, tripa hutsic, utci cen erorcerat alki ttipi baten gainerat, be- hatcen çuelaric leyhotic, choriac airian erabiltcen cirrelaric arinki. Ikhusi ičan çuen aguertcen ceruan ilarguia eta içarac, eta erraiten du nigarretan: «Hantchet, ene aitaren etchea mutiles bethea da çoinac baitute oguia eta arnoa, arroltceac eta gasna, nahi duten becembat. Dembora hortan, ni, goseac, hiltcen ari niz, he- men».

5. «Eh bien, yeikico niz, yoanen niz ene aitaren harrapatcerat eta erranen diot: Bekhatu bat eguin nuen, cutaric urrundua nahi ičan nuenean. Arras hobendun ičan nintçan eta behar nuçu punitu, badakit arras ontsa. Ez neçaçula guehiago deitha çure semea; traita neçaçu çure sehien asquena beçala hobendun nintçan bainan pe- natcen nintçan çu ganic urrun».

6. Aita bere baratcean cen, finitcen cuelaric bere loren arrosatcea; bisitatcen ci- tuen sagar ondoac eta mahatsac. Noiz eta ere ikhusten baitçuen yiten bidearen gai- nean bere semea dena iserdiz eta herrautzez bethea, herrestatcen çuelaric sangoa, doidoya sinhexi çuen. Galdeguin cuen bere buruari, heia behar oté cuen punitu edo barkhatu behar oté cion... Askenean, nigarrac beguietan cituelaric, besoac hedatu çaskon, haren lepora botatcen celaric pote handi bat eman cion».

7. Guero yarraraci cuen bere semea; deitu cituen bere yendeac eta hauçoak. «Le- hen beçala maitatu nahi dut haur gaichoa, erraiten diote, elgarrekin yuntatu ciren beçan sarri. Aski punitua ičan da; nehorec orai ez deçon eguin erreprochuric. Çatoz- te haren ikhustera; ekar çoçue fité camissola pollit bat, émoçué erastun bat erian eta sapeta berri batçu sangoetan. Hartcen ahal dituçué oilharrac, ahateac, eta ekar catçue aratche bat hiltceco on dena. Edanen eta yanen dugu elgarrekin eta eguinen besta handi bat».

8. Mutilec obeditu çuten beren nausiari eta eman tafaila eder bat mahiaren gainean. Memento berean, semeric çaharrena helducen ihicitic bere sacurrekin: «Cer da beraz açantz hori? oihu eguin çuen yuramentu eguinez. Uste dut cantatcen dutcuela hemen; ez da sobera fite guibelerat yin nadin. Erotu cirea, ene aita?»

9. Ez, ez, nuc hala, ene semea, erresponditcen du çaharrac. Hori eguin badut, ceren plazerrez bethea bainitz. Cantatcen dugu eta hourous guira, ceren baitugun arraçoina. Nahi edo ez baduc, cantatu beharco duc hic ere, eta alegueratu beharco duc gurekin, ceren hire aneya hiltcena bicira berriz yin baita. Sorthu berria beçala duc: atço galdua cen egun horra harrapatua».

Notes

u se prononce *ou*

s _____ *ch*

ch _____ *tch* dans le corps d'un mot

z _____ *s*

q est remplacé par *k*

Il n'y a pas de *gn*, ni de *ill*.

c prend une cédille devant *a*, *o*, *u*.

L'Instituteur,
J.D. COUDURE

* * *

1318

Commune d'Anhaux

Canton de St-Etienne-de-Baïgorry

Haur prodigua

1. Batec guizon ez zitin baizic bi seme. Gaz tenac erran zacon bere aitari: da ordu nadin izan neure buriaren nausi eta dezatan izan dihuru. Behar dut ahala izan yuaiteco eta ikhusi lekhu. Parti zazu zure ontasuna eta emadazu eni tokatsen zautana. Ba ene semia erranzin aitac: bezala dukan nahico. Hiz bat gaitcho eta hiz izain punitia». Guero, idikiz bat tirenta, zin partitu bere ontasuna eta hartaz eguinzitin bi pharte igualac.

2. Zembait egunen burian tzarra seme zen yuan herritic eguinez fierrain eta gabe erran adioric nehorri. Pasatu zitin anhitz landa, oihanac, uhaitzac eta helduzen bate-tara handi hiri, zoitan baitzin gastatu guzia bere dihuru. Burian zembait hilaiteren zitin beharizan saldu bere phildac bati zahar emazte eta bera acordatu mutiletaco: zuten igorri alhorretarat han zaintcera astuen eta idien.

3. Ordian zen izan biciki maluros. Ezzin ukhan guehiago oheric eguiteco lo gauaz, ezeta suric berotceco zielaric éguiten hotz. Bazin batzutan hain handia gose non baitzitin untsa yain hec osto aza eta hec fruitu ustel yaten dituzten cherriec bainan nehorc ez zacoten emaiten deus.

4. Batez ats tripa hutsic zen yarri gainian baten hoki so eguinez leihotic chorier ziren hegaldatcen arhinki. Guero zitin ikusi aguertcen cerian ilharguia eta izarrac eta erran zin nigarrez: Hantchet etchia ene aitaren da betia sehiz zoinek baitute oguia eta arnuu, arrultsiac eta gasna, bezembat dutin nahi. Arte huntan ni arriniz hiltcen gosiac hemen.

5. Ebien, niz chutituco niz yuain hatcemaitera ene aitaren eta dacot errain: nin eguin bat bekatu zintuda laric izan nahi zu kitatu. Nin izan handia oguen eta behar nuzu punitu badakit untsa. Ez nizazula deitha guehiago zure semia, trata nezazu bezala azkena zure sehietaric. Niz izan oguendun bainan nin sofritzen urrun zurreganik.

6. Aita zagon bere baratcian akhabatcen ihiztatcen bere lilien, zitin bisitacencen sagar onduac eta mahatsac. Zilaric ikhusi heldu bidian bere semia dena estalia izerdiz eta erhautzez herrestan zangua zin ahalizan doidoya sinhetsi; zen pensaketa egon hea behar cinez punitu edo zakonez barkhatuco. Azkenian nigarrac beguitan zazkon hedatu besuac eta yauziz haren lephora zacon eman bat handi pot.

7. Guero zin arazi yar bere semia; zitin deithatu bere yendiac eta auzuac: «Dut nahi maithatu bezala lehen, gaicho haurra, zen erran zireneco bildu. Da izan aski punitia nehorc orai ez dezakon eguin batere erreprotchuric, zaurte ikustera ekharra-cozie bat poillit palto, ezarrac cotzie bat erhaztun erhian eta zapeta berriac zangotan. Tuzie ahal ere hartcen oillarrac, ahatic eta ekhartcen bat aretche hun dena hiltceco: dugu edain yain elgarrekin eta eguinen bat handi festa.

8. Mutilec obeditu zute beren nausia eta ezarri bat ederra tafaila gainian mahayaren. Berian memento seme guehiena helduzen ihizitic bere chakurrekin: «Cer da arren hau azantz? oihu eguin zin madarizioneka. Dut uste ari zieztela khantuz emen: ez da goiche nadin itzul. Zirea erhotu ene aita?»

9. Ez ene semia, nuc ez hala, erresponditu zakon chaharrac. Badut eguiten hori zeren bainiz bethia bozkarioz. Guituk khantuzari eta guituk uros ezic badiegu ceren. Izandezakan nahi edo ez, duc beharko khantatu hic ere eta alegueratu gurekin, ceren hire anaye zena hila duc itzuli mundura. Bezala balitz heldu sortcetic: atzo zian galidia, egun horra hatzema». »

J. MOURLANE

* * *

1319

Ascarat, le 15 décembre 1894

Canton de Baïgorry

Haur gastosa

I. Guizon batek ez situen bi seme baitzik. Gastenak erraiten dako bere aitari: «Dembora balúke izan nadin neure búruáren eta dirú puchka baten yabe. Behar nuke ahala úkan basterren ikústeko. Partaya sasú súhaúren ontaxuna, eta emadazú nik behar dúdana. - Bai, ene semea, erresponditsen dú aitak; hik nahi dúkan bezala. Gaichtúa hitz eta pounitia izanen hitz». Guero tiranta bat idokisian, partayatú sien bere ontaxúna eta bi partetan esarri situen.

II. Sombait egunen buruan, seme gaichto hura yúan sen bere herritik fier fierra, eta adiorik nehorri erran gabe. Passatú çituen hañitz alor, ohain, eta erreka eta yinzen hiri handi batera, non gastatú baizitúen bere dirú gúziak. Combait ilhabeteren burúan behartu zizaskon jaldú bere arropak emasteki chahar bati eta bera mútil yarri etché batian: igorri çuten landetara astúen eta idien sainçera.

III. Ordian, isan sen bisiki malhúros. Ez zien ez oherik arratsetan lo eguiteko, es eta ere surik berotseko hotz eguiten suelarik. Batzien sombait aldiz hain apetitú handia non yanen baitzúen cherriek yaten ditúzten aza osto eta fruta ujtel horietarik; bainan nehokere etzakoten deúsere emaiten.

IV. Arratx batez, estomaka hútsa, hútzí zuen bere burua erortzera alki baten gainera, lehoitik chori batzúri sozagolarik. Guero ikúsi zitúen aguertzen çeruan ilhargia eta izarrak, nigarrez hasten da erraiten duelarik: Hanche, ene aitaren etchea betea da mutilez non baitute nahi duten bezembat ogi eta arno, arroltze eta gasna. Dembora berean, ni hiltzen nu gosiak hemen.

V. «Eh bien yekiko nitz, yuanen nitz aitaren harrapatsera eta erranen dakot: eguin nuen bekatu bat, çu kitatus. Kulpa handi nuen eta beharko nuzu punitu, badakit arratz ontsa. Ez nezazúla guehiago deita çúre semea, trata nezazú zúre asken mútila baninduçú bezala. Hobendún nindúzún, bainan eneatzen zutarik húrrun».

VI. Aita bere lilien arrotsatzen finitzen arizen bere baratzean: bisitazen zituen sagarrak eta údariak. Ikusi zielarik bere semea heldu zela bidian errautsez eta izerdiz fúnditua, zanguak herrestan ez zuen sinesten ahal. Eguiten zuen bere buruarekin beharoté zuen punitú ala barkatu... Enfin, nigarra beguitan besarkatu çuen eta eman zakon pot handi bat.

VII. Guero yararatzi zuen bere semea; ekararatzí bere etchekuak eta hauzuak: «Nahi dut maitatu lehen bezala, gaicho haurra, erraiten dú bilkura eguin ondoan. Izan da aski punitia: orai nehork ere ez zakoziela erreprochurik eguin. Zatozte ikustera, ekarkozié berehala palto pollit bat, ezarkozié eastún bat ehian eta zapeta berriak zangotan. Hartzen ahal tuzié ollarak, ahatiak eta igortzen ahal ducié ahaché bat on dena hiltzeko; yanen eta edanen dugu elgarrekin eta eguinen dugu besta handi bat».

VIII. Mútilek obeditú zúten beren naúsia eta ezarri zúten tafaila eder bat mahiaren gainean. Dembora berean, semé gehiena itzulzen da ihizitik bere chakurrekin: «Zer da azantz hau? oiha eguiten dú maldiçiak eguiten tuelarik. Husté dut kantatzen duziela hemen; está goiçei yin nindazun. Hehotú zirea, ene aita?».

IX. Ez, ene semea, enuk ehotú, erresponditzen dú zaharrak. Hori eguiten ba-dút, plazerrez betia baïnitz. Kantatzen dúgú eta húros guira, zeren baitúgú motivoa. Nahi badúk eta ez badúk, beharko dúk kantatú eta libertitú gúrekin zeren hire anaia hiltzena pistú baita. Sortú balitz bezala dúk: atzo galdia zukan egún horra harapatia».

Instituteur à Ascarat,

LARROQUE

Traduit en collaboration avec M. Larratapé, propriétaire à Ascarat.

L'Instituteur,

LARROQUE

* * *

1320

Canton de St Etienne de Baïgorry

Commune de Banca

Haour prodigoua

1. Guisson batèc bassitouén bi shémé. Gasténac érraïten dio aïtari: « Dëmbora da yar nadïn éné bourouarén nagouchhi éta issän déssadän dihourou. Youän béhar, dout bastèr icouchtéra. Farti sassou souré, ountachhounac, éta émadassou éné fartéa. Ba, éné shéméa ihardeshmén dio aïtac; nahi doucän béssala. Gachto bat his éta issané his gastigatoua. Idiquitsén dou tiranta bat fartitsén tou ontachhounac bi fartétän bardïn.

2. Sombaït égounén bourouän, shémé gachto hora youaïtén da hérritic béré bourouas hartoua battéré adioric errän gabé néhori. Pachatsén dou haïnbersé alor, oïhän hour éta hëlsén da hiri haoundi batétara, noun gashtatou baïtsitouén béré dihourou goussiac. Sombaït hilabétérén bourouän, obligatoua issän sën béré pouchquén chaalséra émasté sahar bati éta chéhi yarséra: igorri soutén pënséra achtouén éta idién saïn.

3. Ordouän bissiki malourosh issän sën. Ès souén offéric gaouas lo éguitéco, ès chouric hotsétän bérotséco. Haïnbersétaraïno sën gochéa noun yanén baïtsitouén chérièc yatén sioustén assa oshtoac éta frouïtou oushtëldouac; baïnän néhoc éshacön yéouch émaïtén.

4. Arratsh battès tripa houtchic, oustén dou béré bouroua alqui battén gainéra icouchtén touélaric léyhotic choriac aïréän arïnqui sabilsala. Éta icouchtén tou aguersén sérouän ilharguia éta issarrac, éta éguitén dou nicgarrés dagolaric: hän, éné

aïtarén étchéa chéhiès bétéa da doutélaric ogui, arno, arroulsé éta gashna nahi doutén béssambat. Éta démbora béréän, ni gochéac hilsén ari naou.

5. Bérás yéikico nis, youäin nis aïtarén atsémaïtéra éta erräin diot: bécatou bat éguïn dout sou oustéän, houtch haoundia éguïn nouén, éta béhar noussou gastégatou badaquit oucha ès néssassoula guéhiago souré shéméa déïta, trata néssassou souré asquén chéhia béssala. Hobéndoun nüinssän éta flacatsén ari nüinssän soutaric ourroun.

6. Aïta houra béré bahatséän sén lili hourstatsén ari; béguichtatsén sitouélaric shahar ondoac éta mahatchac. Noïs éta éré icouchtén baïtou béré shéméa issérdis éta hérhaoutchés échtalia, sango bat hérréchtän, éssin chïnhétchis égön sén. Galdès sagön gastigatou béhar souén ala barcatou béhar siön... Baïnän béguïac nicgarrès béttéric, sabalsén diosca béchoac, éta lépotic lotouric émaïtén dio mouchou bat.

7. Guéro yar arastén dou béré shéméa; oïou éguïtén dou béré yéndèr éta aou-ssoèr: «Maïtatou nahi dout léhén béssala, haour maïtéa, erraitén dioté dénac élgarré-tarat bildou dirénéän: Achqui gastigatoua issän da: bérás néhoc ès déssossouéla gais-kiric errän saourté icoustéa; écarrassoué choïnéco pollit bat, éssarrassoué érastoun bat ériän éta sapéta bériac sangoétän. Harsén ahalco toussoué oïlar, ahaté, éta ékhar ahatché houn bat hilséco. Edän béhar dougou, yaïn dougou élgarréquin éta bésta bat haoundia éguïnén.

8. Chéhièc éguïtén douté naouchiac manatouac éta éssarsén tafäila bat édérä mahäinëän. Démbora béréän, shémé saharrena héldou da ihissitic chacourrékïn: «Cèrda arrabocht hori? Oïhou éguïtén dou shacré haoundi batékïn ousté dout cän-tous ari siéstén hémén; ès da goïségui yéin nadïn. Érhoutou siréa, éné aïta?».

9. Ès, éné shéméa, ès nis hala, ihardétchi dio saharac. Hori éguïtén dout sérén nissän boscarïos bétéa. Cäntatsén dougou éta ourosh guïra badougou sertas nahi badouc éta ès, béhar douc hic éré cantatou éta béhar douc gourékïn aléguératou hiré anaya hilo pistou douc. Shortou balitz béssala douc: atso galdoua siän éta égoun hatsémana.

BERDOU INSTR À BANCA

Note: toutes les lettres h sont aspirées.

* * *

1321

Canton de Baïgorry
Commune de Bidarray
Haur prodigua

1. Gizon batek ez zituen bi seme baizik. Gazteenak erran zion aitari: «Ordu da izan nadien nere buriaren nausi eta nere diruaren jabe. Johan behar niz hurrun ikus-teko eskualde berriak. Zathi zazu zure ontasuna eta eman zaazut niri tokatzen zaana.

- Bai, ene semea, erran zion aitak, nahi dukan bezala. Haur gachto bat hiz, eta gachto hizan bezala izanen haiz gaztigatua». Gero, tirenta bat idoki eta, zathitu zuen bere ontasuna, egiten zituelarik bi pharte berdinak.

2. Handik lachter, seme gachtoa joan zen herritik fierrarena eginez, nehorri adiorik erran gabe. Iragan zituen larre, oiha eta uhaitz hainitz, eta heldu zen hiri handi batetarat, non chahutu baitzuen bere diru guzia. Zonbait hilabeteren buruan, behartu zitzaion saldu bere soineko phildak emazte zahar bati eta bera eman bertzen me-neko, muthil bezala: Igorri zuten larrerat asto eta idi zain.

3. Geroztik, joan zuen bizia osoki dohakabe. Ez zuen gehio oherik gauaz lo egiteko ez eta ere surik berotzeko hotz aizelarik. Zonbait orduz, hain zuen gose errabia handia, non gogotik janen baitzituen zerrieri aurthikitzen ziozkaten haza osto eta fruitu usteldialk. Bainan nehok ez zion deusik emaiten.

4. Atsalde batez, sabel huts, ezin bertzez, utzi zuen bere burua erortzea alki batea, bihotza ilhunik leihotik so zaolarik lorietan airean zuhatzin chorier. Gero ohartu zen jalkhitzen zirela zeruan ilhargia eta izarrak eta begiak bustirik erran zuen: «Hantchet ene aitaren etchia bethia dago sehiz zoinek baitute nasaiki ogi eta arno, arroltze eta gasna. Anhartehan, ni hemen nago gosiak hiltzen.

5. Jaikhiko naiz, joanen naiz aitari buruz eta erranen diot: «Egin nuen bekhatu zu ganik hurrun joaitan. Hoben handiak nituen, badakit ontsa, gaztigatu behar nuzu. Ez nezazula gehio izenda zure semea, trata nezazu zure azken shia bezala. Hobendun izan nintzen eta zu ganik hurrun deus onik ez nuen, eihartzen ari nintzen».

6. Bere baratzian zen aita, loren hurtatzen ari zena eta denbora berean so bat emaiten zuena sagar ondo eta mahatseri. Ikhusi zuenean heldu zela bere semea izerdiz hurtua, erhautsez dena estalia, zangoa therestan, ezin sinhets zezaken. Gudukan zen heia behar zuen gaztigatu edo barkhatu behar zaion... Azkenekotz, bihotza zabaldu zitzaion, eta begiak nigarrez bustirik hedatu zituen bi besuak, eta besarkatu zuen semea emaiten zaolarik musu gozo bat.

7. Gero jarrarazi zuen, oihu egin zuen bere jende eta auzueri. Bildu zirenean erran zioten: «Maithatu nahi dut haur gaichoa. Aski gaztigatua izan da; hemen goiti nehok ez dezakola egin mehatchu bat. Jin zaitezte ikhustera, ekhar zakozki soineko pollit bat, ezar zakotzi erhian erhaztun bat eta honietan zapata berriak. Harturen ahalko ditutzi oilar eta ahate, ekhartzen ahalko duzi aetche bat hiltzeko on dena. Edan dezagun, jan dezagun, dezagun balsan denek egin besta handi bat».

8. Shiek egin zuten nausiak manhatia eta ezarri mahaian tafaila eder churi bat. Ordu berian, seme gehiena helou zen ihizetik zakhurreki. Oihuz emaiten da eta dio, sakreka dolarik: «Zer da harabots handi hori? Ene ustez khantuz ari zaitzte hemen. Ez da goizegi itzuli bainiz etcherat. Aita zoratu zireia?».

9. «Ez, semea, eman zuen erreposta aita zaharrak, ez nuk zoratua. Besta hau manhatu diat zeren alegrentziaz bethia naizen. Khantuz ari gaituk eta bozkariotan gituk ezin arrazoinak baditiagu. Nahi ala ez hik ere khantatu behar duk, alegeratu behar hiz gurekin, ezin hire anaia hila zuian eta bizirat itzulia duk. Beriz sorthu baliz bezala duk: atzo oraino galdua zuian, hora egun hatchemana gutartean.

Instituteur à Bidarray,

LOUIS IRÉNÉE ROQUEBERT

Observations

1. La commune de Bidarray est bas-navarraise. Située sur les confins de la Basse-Navarre, elle voisine avec Louhossoa qui appartient au Labourd. Elle a aussi plus de relations d'affaires avec Espelette, Hasparren etc... qui sont au Labourd, qu'avec les autres communes de la Basse-Navarre. Aussi le langage s'en ressent-il.
2. *ll* se prononce comme le *ill* mouillé français.
3. *Z* ou *z* correspond à la lettre *s* française et doit se prononcer de même.
4. Le *s*. Le son de cette lettre se rapporte au son de la lettre *j* en français. Mais il n'est pas si doux. Tout en demeurant sifflant ce son doit être, si l'on peut s'exprimer ainsi, plus épais.
5. Le *j* se prononce au Labourd en appuyant la langue sur le palais et l'en retirant brusquement. Ce qui donne le son du *d* adouci.
6. Le *k* se prononce comme le *c* français.
7. Au Labourd et en Basse-Navarre le son *u* n'existe pas. On prononce *ou* et l'on écrit *u*. *in* se prononce *ine* et *au* se prononce *aou*.
8. Le *g* conserve le son dur qu'il a en français intégré devant les voyelles *i* et *e*. Devant les voyelles *i* et *e*, sans qu'il soit besoin d'intercaler.

* * *

1322

Canton de Baïgorry
Commune d'Irouléguy
Haür emplégatzaïlia

1. Guiçon batec etzituen bi seme bécié. Gaztenac erraïten daco bere aïtari: «Ordu du ičan nadin nihaün nagusi eta ukhan deçadan sosa. Behar da yuan ahal nadin eta ikhus deçadan bazter. Çathi çaçü çure huntasuna eta emadaçu nic ukhan behar dutana. - Ba, ene semia, erraïten du aïtac; nahico dukan beçala. Gaïchto bat hiz eta içanen hiz gaztigatia». Guero idekitzen çelalaric tiranta bat, çathitu cien bere huntasuna eta eguin citien bi çathi berdinac.

2. Egun gutiren burian, seme gaïchtua yuan cen herritic eguiten cielaric bapua eta erran gabe adio nehori. Curritu citien hanitz larre, oiñanac, hur handiac eta heldu cen hiri handi batera çoïntan emlegatu baïtzuen bere diru gucia. Cembait hila-beteren buruan behar ukhan citien saldu bere phildac emazte çahar bati, eta sarthu muthil: Igorri çuten alhorretarat astuen eta idien çaintzerat.

3. Ordian içantzen arras maluros. Ez cien ičan guehiago oheric lo éguiteco gaüaz, ez eta ere suric berotzeco hotz cenian. Cembait aldiz hain cien gose handia, nun yaïn baïtzitien aça osto eta fruitu ustelduac çoïnac yaten baïtuzte ourdiec, baïnan nehoc etzacón deüs emaiten.

4. Ats batez, tripa hutsa, uzten da erortzera cicelu baten gäinera, soïten cielaric leïhotic chorier çoinac äïrian bäitzabiltzan ahinki. Guero ikhusten ditu aguertzen ce-rian ilharguia eta içarrac eta dio nigarrez: Hantchet ene äitaren etchia bethia da muthilez ceïneç baïtute oguia eta anua, arrultziac eta gasna: nahi duten becembat. Dembora hortan, ni, gosiac hiltzen nu hemen.

5. Beraz, yeïkiko niz, yuaïn niz harrapatzerat ene äitaïn eta erraïn dacot: «Eguin nien bekhatu bat, çu kitatu nahi ukhan cintutalaric. Hoben handia ukhan nien, eta behar nuçu punitu, badakit untsa. Ez neçaçula deït guehiago çure semia, trata neçaçu çure muthiletaric azkena beçala. Içan nintzan hoben dun, baïnan piruntzen ari nintzan çutaric urrun».

6. Äita bere bahatzian tzen, bere lilien arrosatzen finitzen: bisitatzen citien sagar onduac eta mahatsac. Ikhusi cielaric yiten bidaïän gaïnian bere semia dena estalia icerdiz eta herräütsez, çangua herrestan, doï doïa sinhetsi ahal ukhan çuen hura cela. Galdatzen du bere baïthan behar cienez punitu ala behar çacon barkhatu. Azkenian, nigarrac beguitan, hedatzen dazko bere besuac, eta botatzen delaric haren lephora emaïten daco pöt handi bat.

7. Guero yar arazten du bere semia; deïthatzen tu bere yendiac eta aüçuac: «Nahi dut mäithatu lehen beçala, gaïcho haür haü, erräiten déé bildu cireneco. Içan da aski punitia: nehorc oraï ez deçaçola éguin erreprotchuric. Çäürte ikhustera; ekhar akocie berheala camisola pollit bat, eçar akocie erhaztun bat éhian eta çapeta berriac çangotan. Hartuco ahal tucie ere oïllarac, ahatic eta ekharrico ahatche bat hiltzeco hun dena. Edäïn dugu, yaïn elgarrekin eta eïnen besta handi bat.

8. Muthilec obeditu çuten beren nagusiari eta eçarri çuten tafäila eder bat mahiaren gaïnian. Memento berian, semeric çaharrena itzultzen cen ihicïtic bere chakhurrekin. «Cer da beraz açantz hori? oïhu éguiten du yuramentuz. Uste dut khantuz ari ciezten hemen; ez da goïtche itzul nadin. Eho cirea, ene äita?».

9. «Ez, ene semia, ez nuc hala, ihardesten du çaharrac. Eguiten badut hori, duc placerrez bethia niçalacotz. Khantuz ari guituc eta uros guituc, écic badiagu certaz. Nahi ukhan deçakan ala ez, beharko duc hic ere khantatu eta alegueratu gurekin, ce- ren hire anaya hila cena itzuli baïta bicira. Duc sorthu balitz beçala: atzo galdia çu- kan, egun horra berriz harrapatia».

ESTÉOT DOMINIQUE

* * *

1323

Canton de Baïgorry

Commune de Lasse

Haur prodigua

1. Guiçon batec etcitien bi seme baïcic. Gaztenac erraiten daco bere äitari: «Ordu dut içan nadin ene buriaren nausi eta içan deçadan dihuru. Behar dut lekhu

ikhusi eta yuan ahal ičan nadin. Parti çaçu çure ontasuna, eta emanęaçu eni tocatcen çana. - Ba, ene semia, aitac erraiten daco; nahucan beçala. Gaichto bat hiz eta punitia ičanen hiz». Guero idoquitcen cilaric tieta bat, partitu cin bere ontasuna eta eguin citin bi parte berdinac.

2. Dembora gutin onduan, seme gachtua yuan cen herritic buria harroric, eta nehoari adioric erran gabe. Pasatu citin landa hanitz, oihanac, hur handiac, eta yin cen hiri handi batetara çointan despendiatu baitcin bere sos gucia. Çonbait hilabeteren burian saldu behartu ičan citzazcon bere phildac emazte çahar bati eta soldatan yarri muthil icaiteco: igorri çuten alhorretat astuen eta idien çaintzeco.

3. Ordian, arras maluros ičan cen. Etcin ičan guehiago oheric gauaz lo eiteco, ez suic berotceco hotz eiten cilaic. Batçutan hain gose handia cin nun yaen baitzitin untsa cherriec yaten diuzten aça osto eta fruitu usteldu hec; bainan nehoc etçacon deusere emaiten.

4. Ilhu naar batez, tripa hutsic, utci cin bere buria eortea alkhi baten gainera, behatcen cilaric leihotic chori batçu hegaldatcen cirenac ahinzki. Guero ikhusi citin aguertcen cerian ilharguia eta içarrac, eta erraiten du nigarretan: hantche, ene aitarren etchia muthilez bethia da, çoinec baitute ogui eta ano, arrultce eta gasna, nahuten beçambat. Dembora berian, ni, gosiac hiltcen nu hemen.

5. «Beraz, yeikico niz, yuanen niz ene aitaren harrapatcera eta erranen dacot: eguin nin bekhatu bat, nahi ukhan cintudanian quitatu. Oguen handia ukhan nin eta behar nuçu punitu badaquit untsa. Ez neçaçula guehiago çure seme deitha, trata neçaçu çure azken muthila beçala. Oguendun ičan nintçan, bainan peritcen nintçan çutaric urrun».

6. Aita bere baratcian cen lilien ihistatciaren finitcen, saharren eta mahatsen ikhusten. Noiz eta ere ikhusi baitcin bidian heldu bere semia dena izerdiz eta erhautsez estalia, zangua terrestan, doidoya sinhetsi cin. Bere buriarekin ein cin punitu behar cin ala barkhatu behar zacon... Azkenian, nigarrac beguietan, çabaldu zazcon besuac, eta lephora yauzi ein eta pot handi bat eman zacon.

7. Guero yarraraci cin bere semia, deithu citin bere yendiac eta auzuac: «Nahi dut maithatu lehen beçala, haur gaichua, erran ceen bildu ciren beçain laster. Ičan da aski punitia; nehorc ezteçacola orai gaizkibat erran. Yin cizte ikhustera, ekharrococie fite palto pollit bat, eçarracocie erhaztun bat erhian eta zapata berriac zangotan. Hartcen ahal tucie ere oillarac, ahatic eta ekharri aetche bat hiltceco huna; edanen dugu, yanen elgarrekin eta besta handi bat einen».

8. Muthilec obeditu çuten beren nausiari eta eçarri çuten tafaila eder bat mahiaren gainian. Memento berian, seme gueihiena yiten da ihizitic bere chakhurrekin. «Cer da ba azantz hori? dio yuramenduca. Uste dut kantuz ari cizten hemen; ezta sobera sarri yin nadin. Erhotia cirea, ene aita?».

9. «Ez, ene semia, ez nuc hala, erresponditu cin chaharrac. Hori eiten badut, bozcarioz bethia niçalacotz duc. Kantu eguiten diagu eta uros gutuc, ecin badiaü untsa certaz. Nahi ičan deçakan edo ez, beharco duc ic ere kantu eguin eta bozcario-tan sar hadin gurekin, ceren eta hire anaia hila cena itçuli baita bizirat. Sortcetic heldu balitz beçala duc: atzo galdia çukan, egun horra nun den hatcemana».

Nota

- Dans la lecture du basque toutes les lettres se prononcent: excepté dans: gui, qui.
- La lettre *u* se lit *ou*;
- *c* a les mêmes applications qu'en français.

* * *

1324

Canton de Baigorri

Commune d'Ossès

Haur prodigoa

1. Gizon batec ez zituen bi seme baizic. Gaztenac erran zuen aitari: «Ordu da izan nadin ene buruaren nausi eta ukhan dezadan diria. Bazter ikhusi behaut eta hortaco behaut ahala. Zati zazu zure ontarsuna eta eman daazu heldu zatana. Ba, ene semea, dio aitac; nahi dukan bezela. Gaichto bat hiz eta izanen hiz gaztigatua. Gero idekitzen duelaric ontzi bat, zatitu zuen bere ontarsuna eta egin zuen bi zati berdinaric.

2. Handic laster, seme gaichtoa gaiten da herritic eiten zuelaric frango espantu eta nehorri adioric erran gabe. Iragan zuen anhitz larre, oihanac, urhaitzac eta gin zen hiri handi batetara non chahatu baizuen bere diru guzia. Zembait hilabeten buruan saldu behar ukan zituen bere phildac atso bati eta muthil yarri. Igorri zuten landetar rat asto eta idi zain.

3. Ordian anhitz urrikari zen. Ez zuen gehiago oferic lo eiteco gabaz ez eta ere suric berotzeco hotz zelaric. Zembait aldiz hain gose zuen yanen baitzuen urdec yaten duten aza hosto eta fruta usteldu hetaric bainan nehorc deus ez zacoten emaiten.

4. Ats batez, tripa hutsa, utzi zuen bere burua erortzera alkhi baten gainera so zagolaric chorier arinki airian zoazalaric. Gero ikhusi zuen agertzen zeruan ilhargia eta izarrac eta nigarrez erraiten du bere buruan: «Han, ene aitaren etchia, bethia da muthilez zoinec baitute ogi eta arno arroltziac eta gasna nahi duten bezembat. Dem-bora berian ni hemen hiltzen niz gosez.

5. Beraz yeikiko niz ganen niz aitaren atzemaitea eta erranen dakot: «Egin nuen bekhatu bat utzi nahi ukhan zintudanian. Ukhan nien ogen handia eta gaztigatu behar nuzu badakit ontsa. Ez nezazula deit zure semea gehiago, trata nezazu zure azken muthila bezela. Ogendun ninzan, bainan zutaric urhun ahitua nindagon».

6. Aita bere baratzian zagon, hurstatzen akabatzen bere lilien. Miatzen zituen sargar ondoac eta mahatsac. Ikhusi zuenean bidian heldu bere semea izerdiz eta erhautsez dena betha zango herrestan doidoa sinhetsi ahal ukhan zuen. Galdegin zuen bere buruari behar zuenez gaztigatu ala barkhatu. Azkenean, nigarra begian hedatzen dazko besoac eta haren lephora yautziten zuelaric emaiten daco pot gozo bat.

7. Gero yar arazten du bere semea; oihu egiten du etchecoer eta ausoer: «Nahi dut maithatu lehen bezela, haur gaïchoa, erraten dee, bildu ziren bezein laster. Aski gaztigatua izan da; nehor orai ez dezacotela erran gaizkiric. Zatozte ikhustera; ekharrazoie maaplus pollit bat, ezarrakoie erhaztun bat ehiyan eta zapeta berri batzu zangoetan. Hartzen ahalco duzie ere oilarrac, ahatic, eta aratche bat hiltzeco on dena: Edanen dugu yaan elgarrekin eta einen besta handi bat.

8. Sehiec sinhetsi zuten bere nausia eta ezarri zuten tafaila eder bat mahayaren gainean. Betbetan, seme geyena, ihizitic heldu zen bere zakurrekin: «Zer da beraz harraots hori? dio arneatzen zuelaric. Uste dut kantatzen duzien hemen. Ez da goizegi ethor nadin. Ehotu zirea, aita?».

9. Ez, semea, ez niz hala errepostu eman zuen aita zaharrac. Hola egiten badut, bozcarioz betheric bainiz. Kantatzen dugu eta uros gira ezen badugu zergatic. Nahi ukhan dezakan ala ez beharco duc kantatu hic ere eta bozcariatu gurekin ezen hire anea hila zena phiztu duc. Sorthu baliz bezela duc: Atzo galdia zukan egun horra atzemana.

ETCHETO, instituteur

Note

au se prononce *aou*

u « « *ou*

ai « « *ai*

ge « « *gue*

gi « « *gui*

z « « *ce*

* * *

1325

Canton de St Etienne de Baïgorry

Commune d'Urepel

Haür prodigoa

1. Guiçon batec etçouen bi sémé baïcic. Gasténac erran cion béré aïtari: «Ordu da ičan nadin neuré nagoussi, éta ičan déçadan dirou. Béhar dout hémendic youan ahal ičan éta baster ikhoussi. Çathi çaçou çouré ontassouna éta émaçout cer éré ukhan béhar baïtout». Baï éné séméa, dio aïtac, nahi doucan béçala. Gachto bat hiz, éta gastigatia ičanen hiz. Guéro çabaltcen douélaric tiran-t bat çathitou cian béré ontassouna éta éguin citian hartaz bi pharté bardinac.

2. Handic égoun gouti, sémé gachtoa yoan cen herritic fierraen éguinez éta erran gabé adio néhori. Trébésatou cian hanitz larré, oïhan, uhaïtz, éta yin cen hiri

handi batéra non despendiatou baïtçuen béré dirou goucia. Cembait hilabétéren bourouan béhar oukhan citian saldou béré arropac émasté çahar bati éta béré bouroua arkhillatou mouthil içatéco: igorri çouten alhorrétarat han astoen éta idien çaintcéco.

3. Ordouan içan cen arras dohacabé. Etçouén guéhiago ohantcéric gaïas lo éguitéco ez éta souric bérotcéco hotz éguiten couélaric. Bacion batçouétan haïn gossé handia non gogotic yanen baïtçouen assa osto eta fruitou ustel cerriec yaten ditousténétaric, baïnan néhorc etçacon émaïten déoussic.

4. Gaü batez tripa hutsa, outzi cian béré bouroua értortcéra yar alkhi baten gaïnéra béhatcen çouélaric leihotic ahinki hégaldatcen cien chorier. Guéro ikhoussi citian aguertcen cérouan ilharguia eta içarrac, eta erran çouén béré bourouari nigarrez: Han éné aïtaren etchéa béthéa da mouthilez çoïnec baïtuté ogui eta ardo, arraütce eta gazna nahouten béçaïn bat. Dembora béréan ni gossés hiltcen niz hémen».

5. Eh bién! alchatuco niz, yoanen niz aïtaren édiéitéra éta erranen dacot: Eguin nian békhatu bat nahi içan cintudanian quitatou. Hoben handia içan nian éta béhar nauçou gastigatou; badakit hori ongui. Ez néçaçula deitha guéhiago çouré séméa; ékhar néçaçou çouré cerbitchari ménosséna béçala. Hobendoun nintçan, baïnan hiratcen nintçan çouré ganic hourroun.

6. Aïta béré baratcian cen béré loren hourstatcia acabatcen çouéla; biyitatcen citouen sagartciac éta mahatxac. Noïz eta éré ikhoussi baïtçuen bidéaren gaïnéan heldou céla béré séméa déna icerdis éta erhaütsés estalia, isterra herrestaca doïdoïya sinhetsy ahal içan çouen. Galdéguin çouen béré bourouari béhar çuénez gastigatu ala barkhatou. Azkénéan, nigarrac béguiétan hédatou çascon bessoac, eta béré bouroua botatcen çouélaric haren léphora éman çacon moussou handi bat.

7. Guéro yar araci çuen béré séméa; deïthatou citian béré yendéac éta aüçouac: «Nahi dout maïthatou léhen béçala haür gaïchoa, erran céren bildiac içan ciren béçaïn laster. Aski gastigatia içan da: Néhorc eztéçacola éguin orai erréprotchu bat éré. Çatosté ikhoustéra. Ekharrocoué fité bestiment poïllit bat; écarrocoué éhastun bat éhian éta çapéta berriac oïnétan. Hartcen ahal ditousketçoue éré oïllar ahatic éta ékharctcen hilcéco hon den aretché bat: Edanen dougou, yanen elgarrékin éta éguinen besta handi bat».

8. Çerbitchariec obéditu cioten béren nagoussiari éta éçarri çuten tafaiïla éder bat mahainaren gaïnéan. Dembora béréan sémé guéhiéna itçoultcen cen ihicitic béré tchacurrékin. «Cer da béráz açans haü? oïhou éguin çouen youramendourékin. Ousté dout khantatcen douçouen hémen ezda goïzégui hel nadin. Ehoua ciréa éné aïta?».

9. Ez éné séméa, ez nouc hala erresponditou cian çaharrac. Hori éguiten badout douc boscarioz béthia naïcela. Canthatcen diagou éta ourous guituc, céren badiagou ongui certaz éré. Nahi içan déçacan ala ez béharco douc canthatou hic éré éta alégueratou gourekin, céren hiré anéa hila céna itçouli baïta bicitara. Oraï sorthou baliz béçala duc; atço galdia cia, horra égún harrapatia.

JOSEPH UHALT

1326

Canton de St Jean-Pied-de-Port
Commune de St Jean-Pied-de-Port

Haür prodigua

1. Gizon batec ez zitien bi seme baizic. Gastenac errantzien bere aitari: «Ordu da izan nadien ene buriaren naüsi eta ukhan dezan dihuria, yuan ahal nadien eta baster ikhus ahal dezatan. Zathi zazu zure huntasuna eta emazu eni ukhan beharduana. - Ba, ene semia, errantzien aitac, hic nahucan bezala. Gachtobat hiz eta izain hiz gaztigatia». Gero tiranta bat idokitziarekin, zathituzien bere huntasuna eta hartaz egin zitien bi parte berdinar.

2. Egun gutin burian, seme gachtua yuanden herritic egitian fierraindaco eta nehori adioric erran gabe. Pasatu zitien hanitz larre, oihan eta hur eta yin zen hiri handibateat, nun gastatu baitzien bere dihuru guzia. Zonbait hilabeten burian, behar izan zitien saldu bere hatiac emazte zahar bati eta yarri sehi: igorri zuten landetat astuen eta idien zaintzera.

3. Ordian, unsa maluros izan zen. Etzien gehio oheic lo egiteco, ez suric berotze-co hotz egiten zienian. Zonbait aldiz gosia hain handi zien nun yain baitzities, urdec yaten dituzten aza osto eta fruitu usteldu hec; bainan nehoc etziacozien emaiten deuse.

4. Atsalde batez, sabela hutsic, utzi zien bere buria erortzera alkhi baten gainera, sogitian leihotic chorier, zoin airatzen baitziren ahinski. Gero ikusi zitien agertzen zelian ilhargia eta izarrac eta erran zien bere buriari nigar egitiarekin: «Han, ene aitain etchia muthilez bethia da, zoinec baitute ogi eta arno, arrultze eta gasna nahidien bezambat. Dembora berian ni hemen gosiac hiltzenic.

5. Beraz chutituconuc, yuain nuc ene aitaren hatzemaïtera eta erraen diacoat: «Bekatubat egin nien, zureganic urrundu nahi izan nenian. Oben handia ukhan nizin eta behar nuzu gaztigatu badiakizut hori unxa. Enezazula gehio izenda zure semia. Trata nezazu zure sehietaric menosena bezala. Obendun izan nintzan, bainan zure ganic urrun hurtzen ari nintzan».

6. Aita bere baratzian zen, bere lilien ihistatzia akabatzen ziela; bisitazen zitien sagar onduac eta mahaxac. Ikhusi senian yiten bidiaren gainian bere semia izerdiz eta erhaüxez estalia, zangoua errestan, doï doya sinhexi ahaltzin. Galdegin zien bere buriari gaztigatu behar zenez ala barkhatu behar zaconez. Askenian, nigarra begietan, hedatu zazcon besuac eta haren lephora bere buria botatzian eman ziacozun pot handi bat.

7. Gero yar aazi zien bere semia; deithu zitien bere yendiac eta aüzuac: «Nahidut maitatu, lehen bezala, ene haür gaichua errantzien bildu zireneco. Izan duzu aski gaztigatia; nehork eztezacola egin orai erreprotchuric batere. Zaurte hunen ikhustera; ekharrakozie fite camisola pollit bat; ezarrakozie ehaztun bat ehian eta zapata berriac hoinetan. Hartzen ahal tuzie ere oillarrac, ahatic eta ekhartzen ahatche bat hiltzeco hun dena: elgarrekin yanen, edanen eta besta handibat eginen dugu».

8. Sehiec obeditu zuten bere nausia eta ezari tafaila eder bat mahiaian gainian. Ichtant berian, seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chakhurrekin. «Zer da beraz

azantz hori? oihu egintzien yuramenduka. Iduri zaüt cantatzen ari zieztela hemen; etzu goizegi itzulnain. Ehotia zirea aita?

9. Ez, ene semia, ez nuc hala, ihardexizien zaharrac. Haü egintendiat zeren bainiz boscarioz bethia. Cantatzendiaü eta uros gituc ezic badian zertaz. Nahi ala ez, hic ere beharcoduk cantatu eta bozcariatu gurekin zeren eta hire anaia, zoin baitzen hila, phistu beita; doi doia sortubaliz bezala duc; atzo galdia zucan, egun horra berriz hatzemaña.

Observations

1. Toutes les lettres se prononcent en langue basque.
2. *U* se prononce *ou* comme en espagnol dans la Basse-Navarre.
3. La lettre «*g*» a le son dur devant toutes les voyelles et ne se prononce jamais «*j*».
4. La langue basque n'a pas d'accents; tous les *e* sont fermés.
5. La lettre *z* se prononce comme *ç*.

Saint Jean-Pied-de-Port, le 31 décembre 1894

L'Instituteur,
ESPRABENS

* * *

1327

Canton de St Jean-Pied-de-Port
Commune de St Jean-Pied-de-Port

Haur prodigua

1. Gizon batec ez zitien bi seme bezic. Gaztenac erran zacon bere aitari: «Ordu da izan nain ene burian nausi eta ukan dezaan dihuria, yuan ahal nain eta bazter ikus dezaan. Sathi zazu zure untasuna eta eman ezaazu ukan behautana. - Ba, ene semia, erran zien aitac, hic nahucan bezala. Gachto bat hiz eta gaztiatia izain hiz». Gero, tianta bat idokitziarekin, satitu zien bere untasuna, eta hartaz ein bi parte berdinar.

2. Egun gutin burian, seme gachtua yuan zen herritic dena fantesia eta nehorri adioric erran gabe. Pasatu zitien hanitz larre, oihan eta hur, eta yin zen hiri haundi bateat, nun empleatu baitzien bere dihuru guzia. Zembait hilaiten burian saldu behar izan zitien bere arropac emazte zahar bati eta yarri sehi; igorri zuten landetaat astuen eta idien han zaintzea.

3. Ordian, untsa maluros izan zen; etzien gehio oheic lo iteco ez suric berotzeco hotz iten zienian. Batzutan hain gose haundia zien nun yain baitzitiien urdec yaten dituzten aza osto eta fruita usteldiac, bainan nehoc ez zacon deus emaiten.

4. Atsalde batez, tripa hutsa, utzi zien bere buria erortzea alki baten gainea, leihotic so iten ziela ahinki airian zuatzin chorier. Gero ikusi zitien agertzen zerian ilhargia eta izarrac, eta erran zien bere buriari nigar iten zielaic: Hantche ene aitain etchia, mutilez betia duc zoinec baitute nahuten bezambat ogi eta ano, arrultze eta gasna. Dembora berian ni hemen gosiac hiltzen ari nic.

5. Arren yeikico nuc, yuain nuc ene aitain harrapatzea eta errain diacoat: Bekatu bat in nien zure ganic urrundu nahi izan nienian. Oben handia in nizin eta behar nuzu gaztigatu, badia kizut. Enezazula gehio izenda zure semia. Atchic nezazu zure sehietaic azkena bezala. Obendun izan nintzan, bainan zure ganic urrun hurtzen ari nintzan.

6. Aita bere baatzian zen bere lilien ihizatzaia akabatzen ziela; sahar onduac eta mahatsac ikertzen zitien. Ikusi zienian bere semia bidiaren gainian izerdiz eta errautsez arrunt estalia, zangua herrestan zaramala, doi doia sinetsi zien. Bere baitan erran zien behar zienez bere semia gaztiatu ala behar zacon barcatu... Azkenian, nigarra begitan, besuac hedatu zacon eta bere buria botatzen ziela haren lepoa, pot haundi bat eman zacon.

7. Gero yar aazi zien bere semia; galdin zitien bere sehiac eta auzuac: «Nahi dut maitatu lehen bezala, gaicho haurra, erran zien bildu zien bezen fite; aski gaztiatia izan da; nehorc ez dezacola orai erran gaizkiric batere. Zaurte hunen ikustea; ekaazkozie fite camisola pollit bat. Oilarrac eta ahatiac ere hartuco ahal tuzie eta ekarrico hiltzeco hun den aatche bat: elgarrequin yanen, edanen eta besta haundi bat inen duu.

8. Schiec obeitu zuten beren nausia eta ezarri tafaila eder bat mahian gainian. Ichtant berian seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chacurrekin: «Zer da beraz azantz hori? Oihu in zien yuramentuca. Iduri zaut kantuz ari zieztela hemen; Ez da sobera goiz itzul nain. Ehotia zirea, aita?».

9. «Ez, ene semia, ez nuc hala, errepostu eman zien aita zaharrac. Bozcarioz betia nizalacotz iten diat hola. Kantuz ari gituc eta uros gituc ceren baituu arrazoina. Nahi ala ez, hic ere in beharco duc cantu eta gurekin alegeratu, zeren hire anaia hila zena phiztu baita: Doi doia sortu baliz bezala duc: atzo galdia zucan, egun horra berriharrapatia».

(traduit par M. Haramburu, conseiller municipal)

* * *

1328

Canton de St Jean-Pied-de-Port
Commune d'Ahaxe-Alciette-Bascassan
Haour prodigoo

1. Guiçon batec etcicin bi seme baicic. Gastenac erran ciacoçoun bere aitari: «Ordou douçou naousi içan naïn eta diouria oukhan deçaan. Joan behar dicit eta baster ikhousi. Pharti çacou çoure ontasouna, eta eman eçaaçou yiten çaana. - Ba, ene semia, erran cicin aitac, nahoukan beçala. Gastobat hiz eta pounitia içain hiz». Eta guero tienta bat ideki eta, bere ontasouna phartitou cicin bi pharté berdinetan.

2. Handic cembraït egunen bourian seme gaïchtoa youan çouçoun herritic, fieraren iten ciela, nehorri adio erran gabe. Pasatou citcin anhitz larre, oïhan, erreka, eta heldou çouçoun hiri handi baterat noun despentiadou baïtcien bere dihourou goucia. Cembraït hilabeteren bourian, behar oukan citcin saldou bere phildac emaste sahar bati eta berac sehi yarri: igorri cicien landaat astouen eta idien çain.

3. Ordian, biciki malouros içan çouçoun. Etcicin guehio oheric atsian lo iteco, ez souic berotceko hotz cenian. Cembait aldi hoïn gose cicin, non yanen baïtcicien cherriec yaten ditousten açã osto eta frourou ousteldouac: bainan nehoc ere etciaçoun deusere emaïten.

4. Atz batez tripa houtsa, outci cicin bere bouria erortcera eskabela baten gagna, soiten cielaïc ahinzki hegaldaca çailtçan chorier. Guero ikhousi citcin aguertcen cerian arguiçaitia eta içarrac eta bere bouriari erran cicin nigarrez ari celaric: Hantçetan ene aitaren etchia bethia da sehiz, çoinec baïtitouzte ogui eta ano, aroltce eta gasna nahoutena. Dembora hortan, ni gosez hiltcen ari niz hemen.

5. Ebien, yeikiko niz, yoanen niz nere aitaren ganat eta erranen dacot: Bekhatou bat in nicin çou kitatou nahoukan cintoualaric. Ontsa oben oukhan nicin, behar nouçou pounitou bacikiçout. Eneçaçoula guehio deïth çoure semia, trata neçaçou çoure sehietaric oundarra beçala. Obendoun içan nouçou, baïnan sofriccen nicin çoure ganic ourroun.

6. Aïta bere baatcian çouçoun, bere liliac ihizatouric: bisitatcen citcin bere sahar ondouac eta mahatz ondoac. Ikhousi cienian bidian heldou bere semia icerdiz eta heraoutsez dena estalia, çangoua herrestan, doï doïetaric eçaoutou cicin. Bere bouriari galdin cicin behar cienez houra pounitou ala barkhatou behar çacon. Askenian niarra beguietan, besouac çaaldou çazkotçoun, eta lephotic lotcen çakolaïc pot bat eman çakoçoun.

7. Guero yarraaci cicin bere semia, bildou citcin bere serbitchariac eta aouçouac, eta erran ciaçoun: «Nahi dout maïtatou aïtcinian beçala haour gaïcho haou. Içan da aski pounitia; nehoc ere esteçakola guehio erreprotchouric in. Çaurte haren ikhous-tera ekhar akocie fite bezti pollit bat, eçar akocie erhaztoun bat ehian eta çapata berri batçou çangouetan. Hartcen ahal toucie cembraït oïllar eta ahate, eta ekhartcie aha-tche guicen bat: behar douou edan, yan elgarrekin, eta besta handibat in».

8. Sehiac nausiaren maniac in citcien eta eçarri citcien tafailla eder bat mahaïnian. Memento berian seme guehiena heldou çouçoun ihicitic bere chakhourrekin. «Cer da haborotz haou? oïhou in cicin youratouz. Ouste dout yostatcen ciesten hemen, eniz goïtche yiten. Ehotou cirea aita?».

9. Ez ene semia enouc ehotou, erresponditou çakoçoun saharac. Hola iten baout, iten diat content niçalakotz. Khantouz ari guitouac, eta hours guitouac arraçoinekin. Nahi ala ez, hic ere beharcoouc kantou in eta alegueratou gourekin, ceren eta hire anaïa hila cena phiztou den. Berriz sorthou baliz beçala douc: atso galdia çoukan, egoun aldis hara nounden atsemana.

L'Instituteur,

OILLOQUY

1329

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune d'Aïncille

Haur prodigua (enpoiltzalia)

1. Gizon batec ez zituen bi seme bezic. Gaztenac erran zacon bere aitari: «Orduizi izan nadien neure buriaren nausi eta ukhan dezadan dihuru; yuan ahal nadien eta ikhus dezadan lekhu. Zathi zazu zure huntasuna eta eman ezaazu eni ukhan behar duana». Ba, ene semia, erran zien aitac: hic nahicocan bezala. Gachto bat hiz eta izanen hiz gaztigatia. Gero idokitziarekin tiranta bat zathitu zien bere huntasuna eta egin zitien hartaz bi farte berdinac.

2. Egun gutin burian, seme gachtua yuan zen herritic egitian fantesuntziaina eta nehorri adioric erran gabe. Phasatu zitien bestaldeat anhitz larre, oihan eta hur eta yintzen hiri handi batera, nun gastatu baitzien bere dihuru guzia. Zonbait ilhaiten burian, saldu behartu zitzacon bere arropac emazte zahar bati eta yarri sehi: igorri zuten alhorretat han zaintzera astuen eta idien.

3. Ordian izantzen arras maluros. Etzien gehio oheric lo egiteco, ez suric bere berotzecho hotz egiten zienian. Zonbait aldiz bazien gosia hain handi nun yain baitzitian cherriec yaten dituzten aza osto eta fruitu usteldu hec: bainan nehoke etzia-cozien emaiten deuse.

4. Arraxalde batez, sabela huxic, utzi zien bere buria erortzera alkhi baten gainera, so egitian leihotic chorier zoin airatzen baitziren ahinzki. Gero ikhusi zitien zezarian agertzen ilhargia eta izarrac eta nigar egitian errantzien bere baithan: «Han, ene aitaren etchia bethia duc muthilez zoinec baitute ogi eta ano, arrultze eta gasna nahi dien guzia. Denbora berian gosez hiltzen ari nuc hemen.

5. Beraz chutituco nuc, yuainuc ene aitaren hatzemaitera (kausitzera) eta erranen diakoat: Egin nizin bekhatu bat zu utzi nahi zintudanian. Hoben handia ukhan nizin eta behar nuzu gaztigatu, baziakizut hori unxa. Ez nezazula deitha gehio zure semia. Trata nezazu zure sehietaric menosena bezala. Izan nintzan hobendun, bainan piruntzen (hurtzen) ari nintzan zure ganic urrun.

6. Aita bere baratzian zen, bere lilien hurtatzia akhabatzen ziela: bisitatzen (miratzen) zitien sagar onduac eta mahaxac. Ikhusi zienian yiten bidiaian gainian bere semia estalia guzia izerdiz eta erhauhez, zangua herrestan, doi doia sinhexi zien hura haren semia zela. Erran zien bere baithan behar zienez hura gaztigatu ala behar zacon barkhatu. Azkenian, nigarra begietan, hedatu ziazcozun besuac eta bere buria botatzen zelaic haren lephora eman ziacozun pot handi bat.

7. Gero yar arazi zizin bere semia; deithu zitzin bere yendiac eta auzuac: «Nahi zit maithatu, lehen bezala, ene haur gaichua, erran ziezun bildu ziren bezain laster. Aski gaztigatia izan duzu. Nehoke eztezacola egin orai erreprotchuric batere. Zaurte hunen ikhustera; ekharracozie behala barneco gaineco po-illit bat; ezarracozie ehaztun bat ehian eta zapata berriac hoinetan. Hartzen ahal tuzie ere oillarrac, ahatiac eta ekhartzen ahatche bat hiltzecho hun dena: edanen, yanen diziu elgarrekin eta eginen besta handi bat.

8. Sehiec obeditu zizien beren nausiari eta ezarri zizien tafaila eder bat mahiaian gainian. Ichtant berian seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chakhurrekin: «Zer

da beraz azantz hori? oihu egin zien yuramentuca. Iduri ziazu cantatzen duziela hemen; etzu goizegi itzulnadin. Ehotu zirea, ene aita?»

9. «Ez, ene semia, ez nuc hala, ihardexi zien zaharrac. Bozcalentziaz bethia nizalakit egiten diat hola. Cantatzen diau eta uros gituc, ezic badiau zertaz. Nahi ukhan dezakan ala ez, beharkoc hic ere cantatu eta bozcariatu gurekin, zeren eta hire anaya zoin baitzen hila phiztu baita. Orai berian sorthu balitz bezalauc: atzo galdia zucan; egun horra nun den berriz hatzema».

Mⁱⁿ INCHAUSPÉ

Observations ou explications

Dans le basque, toutes les lettres se prononcent: Ainsi *au* se prononce *a-ou*; *ai* = *a-i*. Exemples: *haur* = *ha-our*; *aita* = *a-i-ta*. Tous les *e* sont fermés, mais ne prennent point d'accent. L'*u* se prononce *ou* en Basse-Navarre. Le *g* a le son dur même devant les voyelles *e*, *i*. Ainsi *ge* et *gi* se lisent *gue*, *gui*. La lettre *z* = *ç*. *Ain* ne se prononce jamais *ein*. *En* ne se lit pas *an*; il se prononce comme dans le latin *amen*. *In* n'est jamais *ein*: il se lit comme dans le latin *in memoria*, *in extenso*, *in secula*..., soit au commencement, soit dans le corps, soit à la fin du mot. *Oin* = *o-in*. La lettre *h* est toujours aspirée.

* * *

1330

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune d'Ainhice-Mongelos

Haour barréatia⁽¹⁾

1. Guiçon batéc etcién bi sémé baïcic. Gaztéénac erran çacon aïtari: «Ordou da éné naoussi içan nadin éta oukhan déçadan dirou. Béhar nouqué yoan éta ikhoussi lékhou. Çathi çaçou çouré ontassouna, éta éman éçadaçou heldou çadana. - Baï, éné sémia, erran cién aïtac, nah[i d]joucan⁽²⁾ beçala. Gachtaguin bat hiz éta gaztigatia içanén hiz». Guéro çabaltcén ciélaric tiadér bat, çathitou cién béré ontassouna éta hartaz éguin bi çathi bardinac.

2. Hantic égoun goutién bourian sémé gachtoa yoan cén herritic éguinéç éhoañna, éta erran gabe adio néhori. Iragan citién hanitz larré, oihanac, our handiac, éta yin cén hiri handi batéra, non chahoutou béitcién béré dirou goucia. Hilabete çom-

¹ Pour la prononciation, voir une note à la fin.

² Dans le langage parlé on supprime ces deux lettres entre crochets.

baïtén bourian, saldou béhar içan citièn béré phildac émazté chahar bati éta bérac mouthil yarri: igorri çoutén landétarat astoén éta idièn çaintcera.

3. Ordian biciki dohacabé cén. Etcien guehiago ohéric lo éguitéco gaouaz, ez souic hotz éguitén ciélaric bérotcéco. Haïn gossé handia cièn çombaït aldiz non yanén béitcitièn gogotic açà osto éta frouta oustéldou ourdèc yatén douztén hec; baïnan néhorc étçacon déoussic émaïtén.

4. Arrats aldi batéz, sabéla houtsic, béré bouria outci cièn érorcéra alkhi batén gaïnéra, so éguitén ciélaric léihotic chorier, çoïnac hégalatcén béitcirén arhinki. Guéro ikhoussi citièn aguértcén cérouan ilharguia éta içarrac, éta erran cièn béré bouriari nigarréz: «Hanchet, éné aïtarén étchia béthia da séhiz çoïneç baïtouté ogui éta arno, arraoutcé éta gasna, nah[i d]outén⁽³⁾ béçaïn bat. Démbora bérian, ni, gosséarékin hiltcén niz hémén.

5. Eta arrén, yéikico nïz, yoanén niz aïtarén caoussitcéra éta érranén dacot: «Éguin nicin békhatou bat outci nahi içan cintoudalaric. Obén handia içan nicin, éta béhar naouçou gaztigatou, hori ongui badakiçout. Énéçaçoula déith guéhiago çouré sémia, ékhar néçaçou çouré azquén mouthila béçala. Obéndoun bilhacatou nindouçoun, baïnan éihartcén nindouçoun çoutaric hourroun».

6. Aïta béré baratcian cén béré lilic hourstatouric: so çagon béré sagar ondo éta mahatsér. Ikhoussi ciélaric yitén bidian béré sémia goucia éstalia icérdiz éta érhaoutséz, héréstan çangoa, néquéz hori sinhétsi ahal içan cièn. Béré bourouarékin⁽⁴⁾ éguin cièn béhar othé cièn gaztigatou édo béhar çacon barkhatou... Azquénécoz, nigarrac béguian, hédatou ciozcan bessoac, éta yaouciric léphora éman çacon pot handi bat.

7. Guéro yar araci cièn béré sémia; déithou citien béré etchécoac éta aoçoac: «Nahi dicit maïthadou léhén béçala, haour gachoa, erran ciotén bildou cièn béçaïn lastér. Aski gaztigatoua içan douçou: néhorc éztéçola oraï érran gaïzkiric batéré. Çauté hounén ikhoustéra; ékhar éçocié béhala chamar pouillit bat, éçarcotcié érhaztoun bat érhian éta çapata bérriac oïnétan. Hartcén ahal éré toutcié oïllarac, ahatic, éta ékhartcén aratché bat hiltcéco on déna: édanén dougou, yanén élgarrékin éta éguinén bésta handi bat».

8. Mouthiléc éguin çoutén naoussiaren érrana éta éman çoutén dafaïla édér bat mahiaren gaïnén. Ordou bérian, sémé guéhiéna itçoultcén cén ihicitic béré chakhourékin: «Cér da bada harraots hori? érran cièn oihouz arnégouca. Ousté dout khantouz ari ciztéla hémén; ézta goïcégui itçoul nadin. Éhotia ciréa, éné aïta?

9. - Éz, éné sémia, énouc hala, érépousta éman çacon çaharrac. Hori éguitén badiat, aléguéranctiaz béthia niçalacoç douc. Khantouz ari guitouç éta bozcarioan guitouç, céren baïtougou ongui certaco. Nahi édo éz, béharco douc khantatou hic éré éta aléguératou gourékin, céren éta hié anaïa, çoïna hila baïtcén, bérriç yin douc bicirat. Oraï sorthia baliz béçala douc: atço galdia çoucan, égoun horra non dougoun hatcémana».

T.S.V.P.

³ Les deux lettres entre crochets ne se prononcent pas.

⁴ Il faut *bouriarékin*: *bourouarekin*, écrit ici par erreur, se dit dans le Labourd.

Pour lire la traduction ci-dessus, se conformer aux observations suivantes:

- 1.° Tous les e, sans exception, sont, en basque, des é fermés.
- 2.° Le h est toujours aspiré.
- 3.° La consonne s, simple ou redoublée, se prononce comme le s espagnol.
- 4.° z se prononce comme ç.
- 5.° Les voyelles nasales an, en, in, on se prononcent toujours comme en espagnol, c'est-à-dire qu'elles doivent se prononcer ane, éne, ine, one, mais la voyelle finale (e) étant complètement muette.
- 6.° y se prononce comme un d mouillé.

Note sur la traduction. J'ai traduit d'abord le morceau moi-même. Ensuite j'ai lu la traduction quatre fois devant plusieurs personnes de la commune, en la corrigeant chaque fois suivant leurs observations. Enfin je l'ai lue à une personne âgée n'ayant jamais quitté la commune et réputée comme parlant très bien le basque; celle-ci n'a plus trouvé rien à changer. J'ai donc la certitude que le basque que j'ai écrit est bien celui qu'on parle dans la localité.

Ainhice-Mongelos, le 9 décembre 1894

L'Instituteur,
M. BEIGNATBORDE

* * *

1331

Canton de Saint-Jean-Pied-de-Port

Commune d'Arnéguy

Haur prodigua
(*L'enfant prodigue*)

1. Gizon batec ez zuen bi seme baizic. Gaztenac erraiten du bere aitari: «Ordu du izan nadin neure nausi eta izan dezatan diru. Behar dut kurrutu eta leku ikhusi. Parti zazu zure ontasuna, eta eman eni, izan behar dutana. - Bai, ene seme, dio aitac; nahi dukan bezala. Gaichto bat hiz eta izanen hiz gaztigatua». Gero tiranta idokiric, partitzen du bere ontasuna eta egiten bi parte berdinaric.

2. Egun gutien ondotic, seme gaichtoa, gan zen herritic eginez fierra eta nehoi adio erran gabe. Kurrutu zituen hanitz landa, oihan, hur handi eta heldu hiri handi batetala, nun gastatu baitzuen bere diru guzia. Zonbait ilabeteren burian, behar izan zituen saldu bere arropac emazte zahar bati eta akordatu muthil izaiteco: igorri zuten alhorretalat asto eta idi zain.

3. Ordian, izan zen arras maluros. Ez zuen geihago oheric lo egiteko gaiiaz, ez eta suric berotzeko hotz egiten zuelaric. Hain zen zonbait aldiz gose handian, nun

gootic yanen baizuen aza osto eta fruita usteldu yaten tuztenac urdec; bainan nehorc ez zaïon deuse emaiten.

4. Arrats batez, tripa hutsa, erori zen alki baten gainera, so eginez leihotic, choriac hegaldaka arinki. Gero ikusi zuen agertzen zeruan ilargia eta izarrac eta berari erran zuen nigarrez. Han, ene aitaren etchia bethia da muthilez zoinec baitute ogi eta arno, arroltze eta gasna, nahi duten bezanbat. Denbora berian, ni hiltzen niz gosez, hemen.

5. «Eh bien! yekico niz, yuänen niz aitaren ganat eta erranen diot: Egin nuen bekatu, nahi ukhan nuenian zu kitatu. Oben handi ukhan nuen, eta behar nauzu gaztigatu, badakit untsa. Ez nezazulu geihago deit zure semia, trata nezazu zure muthiletaric azkena bezala. Obendun nintzan, bainan izigarri sofritzen nuen urrun zutaric».

6. Aita zen bere baratzen, akabatzen lilien hurtatzia: so zagon, sagar onduer eta mahatser. Ikhusi zuenian yiten, bide gäinen bere semia izerdi eta erhautsez estalia, zangua terrestan, doi doya sinhetsi ahal ukhan zuen. Bere buriari galdetu zuen behar zuen gaztigatu edo barkhatu. Gero nikarrac begietan, besoac aitzinatu zituen eta iraganetz lephora, eman zakon pot gizen bat.

7. Gero, yar arazi zuen bere semia; deitu zituen etheco yendiac eta auzuac: «Nahi dut maitatu lehen bezala, gaicho haurra, heri erran zuen, bildu zien bezain laster. Aski gaztigatua izan da: nihorc ez dezakon orai egin batere erreprotchuric. Zaurte haren ikhusterat; ekarrazakozie fite palto pollit bat, ezarrakozie eratzuna erhian eta zapata berriac zanguetan. Hartzen ahalko duzie ere oillarrac, ahatic, eta ekartzen aatche bat huna hiltzeko: edanen dugu, yanen dugu elgarrekin eta eginen besta handi bat».

8. Mutelec obeditu zuten nausiari eta ezarri tafaila ederra mahainaren gainen. Memento berian, primia heldu zen ihizitic chakurrekin: «Zer da azantz hori? oi hu egiten du sakreka. Iduri zaut kantuz ari ziezuela hemen; ez da goizegi itzul nadin; errotu zirea, aita?»

9. Ez, ene semia, ez nuc hala, errepostu aita zaharrac. Egiten badut hori, alegrantziaz bethia bainiz. Kantuz ari gira eta uros gira, baitugu zer. Hic nahi edo ez beharco duc khantatu eta alegrantziaz bete, zeren hire aneya hil dena, phiztu baita. Orai sortu balitz bezala duc: atzo galdia zukan, egun horra berriz bildia».

ELISSAGARAY

Nota

L'orthographe a été respectée. Aussi:

- 1.° toutes les voyelles doivent être décomposées;
- 2.° en = in; g = gue; ll = ill;
- 3.° u = ou; z = ç; e = é = è = ê;
- 4.° s = ch gras (ce son n'existe pas en français).

Pour la traduction, le mot à mot du morceau a été suivi. Dans le basque usuel, les inversions sont plus fréquentes.

1332

Canton de St Jean-Pied-de-Port
Commune de Bussunarits-Sarrasquette

Haur prodigua

1. Gizon batec ez zuen bi seme baizic. Gaztenac erraiten dio bere aitari: «Ordu da nausi izan nadien eta izan dezadan sosa. Behar nukhe yuan eta lekhuac kurrutu; zatikha zazu zure ontasuna eta emadazu ene partia. - Bai, ene semea, dio aitac; nahi dukan bezala; gaichtagin bat hiz eta gaztigatua izanen hiz». Gero aitac zabaldu eta tirant bat zatitu zuen bere ontasuna eginez bi parthe bardinac.

2. Handic zombait egunen buruan seme tzar hura yoan zen bere herritic fierraena eginez eta nehoric ere adioric egin gabe. Khurritu zituen haitniz landa, oyhan, hur alde eta gero erori zen hiri handi batetarat nun despendiatu baitzuen bere sos guzia. Zombait ilabeteren burian, saldu zituen bere phildac atso zahar bati eta behar izan zuen sehi yarri: igorri zuten landetarat idi eta asto zain.

3. Orduan izan zen maluros. Ez zuen oheric gauaz, ez suric hotz zelaric. Batzutan hain gose zen nun yanen baitzuen gogo hunez cherrieri emaiten den aza ostoa eta fruitu usteldu hetaric; bainan nehorc ez zion deusere emaiten.

4. Arrats batez, tripa hutsic, uzten du bere burua erortzerat alki baten gainerat, soiten duelatic leiotic choriac airian. Gero ikhusten du zeruan ilhargia, izarrac eta bere buruari dio nigarrez: Han, ene aitaren etchea bethia da sehiz zoinec baitute ogi eta arno, arroltze eta gasna nahi duten bezenbat. Eta ni ber demboran, gosia nago hemen.

5. Eh bien, yeikiko niz, yuanen niz ene aitaren ganat eta erranen diot: Bekhatu egin nuen, zu kitatuz; hoben izan dut; behar nauzu gaztigatu, hori badakit. Ez nezazula gejago ni deit zure semea; trata nezazu zure azken mutila bezala. Hoben izan nuen, bainan peritzen nintzan zure ganic hurrun.

6. Aita bere baratxian zagon, lili arrosatzen, bere sagar eta mahatseri beha. Ikhusi zuenian bidian heldu bere semea izerdiz eta errautsez bethea, tiraka heldu, ez zezaiken sinhets. Bere baitan ari zen eyan behar zuenez gaztigatu edo barkhatu... Askenian, nigarrac begian, hedatzen ditu bere besoac, lotzen saio semeari lephotic eta emaiten dako pot handi bat.

7. Gero yarrarazten du bere semea oihu egiten du bere yenderi eta bere auzueri: «Nahi dut maitatu ene semea lehen bezala, dio aitac, denac bildu direlaric. Aski gaztigatua izan da; nehorc ez dezakola mehatchuric egin. Zatozte ikhusterat; ekhar zako zue kamisola eder bat; emakozue eraztun bat erian, zapata berriac oinetan. Hartzen ahal dituzue ere oilhar eta ahate, ekhar zazue ahatche hun bat hiltzeko. Yan eta edan behar dugu guziec elgarrekin eta besta handi bat egin.

8. Shieic obeditu zuten nausiari eta ezarri tafaila eder bat mahainaren gainean. Memento berean, heldu da seme zaharrena ihizetic bere chakhurrekin: «Zer dira azantz horiec, erraiten du, sacre batekin. Uste dut khantuz ari zieztela. Ez da goizegi itzul nadien. Errotu zirene aita?»

9. «Ez, ene semea, ez nuc errotu, dio aita zaharrac. Hori egiten badut, egiten diat alegera nizalakotz. Khantuz ari gituc eta uros gituc eta badiagu arrazoin. Hic

nahi edo ez, beharko duc hic ere khantatu eta alegeratu gurekin zeren hire anaya hila baitzen eta phiztu baita. Berriz sorthu balitz bezala duc; atzo galdua zukan, egun arrapatu diagu».

L'Instituteur de Bussunarits,

G. ELISSAGARAY

* * *

1333

Canton de Saint-Jean-Pied-de-Port

Commune de Bustince Iriberry

Haour onthasoun chahouçaïlèa

1. Guïçon ⁽¹⁾ batèk ètcièn bi ⁽²⁾ sèmè bécik. Gazténak ⁽³⁾ erraïtèn dako aïtari: «Ordouïci içan nadïn ènè bouriaïn naousi éta oukhan ⁽⁴⁾ déçadan dihourou. Béhaïcit youaïtéko⁽⁵⁾ ahala éta lékhou ikhoustéko. Çathika çaçou çourè onthasouna éta éman éçadaçou eni hèldou çadana. - Ba, ènè sèmia, erraïtèn dou aïtak; nahoukan bèçala. Gaïchto bat hiz éta içaïntz gaztigatia». Guïo çabalcèn cièlaïk tièta bat, çathikatou cièn bèrè onthasouna éta éguïn bi çathi berdinan.

2. Egoun goutïn bourian, sèmè gaïchtoua youan cèn herritik bouria goraïk, néhori adioïk (berriz artio) erran gabè. Phasatou cièn anhitz larrè, oïhan, our errèka; éta yïn hiri haoundi batèra, çoïntan chahoutou baïtcièn bèrè sos goucia. Çombaït ilhaïtèïn bourian, bèhartou citçazkon saldou bèrè phildak émaztè chahar bati éta alokaïrian yarri mouthil guisa: igorri çoutèn alhorrètat idièn éta astouèn çaïntcèa.

3. Ordian içantcèn biciki dohakabè. Etcien oukhan guèhio ohèik lo itèko atsian, ez souik bèrotcèko hotcènian. Bacièn batçoutan haïn gosè hanoundia noun yaïn baïtcièn gòtik ⁽⁶⁾ cherrièk yatèn ditoutèn aça osto éta frourou oustèldou hèk; bana nèhok étçakon déousèrè émaïtèn.

4. Gaou batez, sabèla houtsa, outci cèn érorètèra alkhi batèn gaïnèa, soïtèn cièlaïk léihotik chorièri hègaldakatcèn ahïnki. Guïo ikhousi citièn aguèrtcèn cèrian arguïçaria eta içarrak éta erran cièn bèrè baïthan nigar éguïtèn cièlaïk: Han, (hantche) ènè aïtaïn étchia mouthilèz bèthiaouk, çoïnèk baïtoutè oguia éta anoua, arroultciak éta gasna, nahoutèn bèçambat. Dèmbora bèrian, ni, hiltcèn nouk gosèz hèmèn.

5. «Bèraz choutitouko nouk, aïtaïn khaousitcèa youaïn nouk éta èrraïn diakoat: Eguïn nicïn bèkhatou bat, noïcère nahi oukhan cïntouanian dèspèïtou. Oguèn haoundia oukhan nicin, éta bèhar nouçou gaztigatou baciaïçout ountsa. Enèçaçoula deïth guèhio çourè sèmia, har nèçaçou çoure azkèn mouthila bèçala. Oguèndoun içan nouçou, bana hourtcèn aï nïndouçoun çoutaïk ourroun».

6. Aïta bèrè bàtcian cèn lilièn ihiztatcèn akhabatcèn ari: ikhouska çabilan bèrè sagartcèn éta mahatsèn. Ikhousi ciènian yïten bidiaïn gaïnian bèrè sèmia icèrdiz éta

èrhaoutsez èstalia, çango bat herrèstan doï doïa sînhtësi cièn. Bèrè baïthan erran cièn bèhar ciènèz gaztigatou ala bèhar çakon barkhatou... Azkènian, nigarrak bèguiètan, hèdatou çazkon bèsouak éta yaouciten çakolaïk lèphora éman çakon pot haoundi bat.

7. Guèro yarraraci cièn bèrè sèmia; deïthou citièn ètchèkouak éta ouçoouak: «Nahiout maïthatou lèhèn bèçala, gaïcho haourra, erraitèn dé bildou cien bècèn lastèr. Içan da, aski gaztigatia; nèhok ez dèçakola ouaï gaïzkirik batrè erran. Çaourtè hounèn ikhoustèa; ékharrakociè bèhala camisola bat pollita (7), éçarrakociè erhaz-toun bat èhian éta çapèta berriak oïnètan. Hartouko ahal touciè oïlarrak, ahatiak, éta ékharriko ahètchè bat hiltcèko houn dèna: édaïn dougou, yaïn élgarrèkin éta èguinèn bèsta haoundi bat».

8. Mouthilèk èguïn çoutèn naousiak errana éta èçarri çoutèn tafaïla bat édèrra mahaiarèn gaïnian. Ordou bèrian, sèmè guèhièna hèldou cèn ihicitik bèrè chakhourrèkin. «Cer da bèraz açantz hori? oïhou èguitèn dou youramèntouïkin. Idouri çaut khantouz ari cièztèla hèmèn: ezta goïcèi yïn naïn. Erhoua cirèa ènè aïta?» [ehotou].

9. «Ez, ènè sèmia, ènouk hala, ihardestèn dako çaharrak. Hori itèn baout, itèn diat bozkarioz bèthia niçalakouan. Ari guitouk khantouz éta dohatsou guitouk, écik badiaou ountsa certaz. Nahi baouk éta ez, bèharkôouk khantou in hik èrè éta bozkariatou gouèkin, cèrèn hirè anaïa hila cèna phiztou douk (bicirat itçoouli douk). Sorth bèrri bèçala douk; atço galdia cian, ègoun horra hatcèmana».

L'Instituteur,

JEAN CURUTCHET

Notes

Le basque a été écrit tel qu'il est parlé dans la commune.

- I. *on, en, an, in, ain, oun* placés à la fin des mots se prononcent *one, ène, ane, ine, aïne, ounè*.
- II. L'*s* se prononce comme *j* ou mieux comme le «*s*» gras espagnol.
- III. Le «*z*» se prononce comme *s* ou *ç*.
- IV. Le *h* est toujours aspiré.
- V. L'*y* se prononce en appuyant le bout de la langue contre les dents et le palais autrement comme *ill*.
- VI. Le *l* est mouillé dans *ll*.
- VII. L' ^ sur *a, o, e*, indique que la voyelle est longue.

* * *

1334

Canton de St-Jean Pied-de-Port

Commune de Çaro

Haur prodigua

1. Gizon batec bazitien bi seme. Gaztenac errantzacon aitari: «Ordu dizi izan nadin nihauren nausi eta ukhan dezadan dihuru. Yuan behartzit kartier ikhustera. Phartizazu zure huntasuna, eta eman eni neure lejitimua. - Ba, ene semia, errantzien aitac; nahucan bezala. Gaichtobat hiz eta izain hiz gaztigatua». Gero, idokitzenzielaric tirentabat, phartituzien bere untasuna eta intzitian hartaz bi porzione bardinac.

2. Hantic fite, seme tzar hori yuantzen herritic iten zielaric fierrarena, eta nehoi adioric erran gabe. Trebesatu zitien landac, oyhanac, uhaitzac, eta yintzen hiri handi batera, nun impoïldu beitzien bere dihuru guzia. Zombait hilabetheren burian, behar ukhan zitien bere arropac saldu emazte zahar bati eta bortchatia izantzen muthil yartzera: igorri zuten alhorretarat asto eta idi beiratzera.

3. Ordian izantzen maluros. Etzien oheric arhatsetan lo egiteco, ez eta ere suïc hotz zelaric berotzeco. Zombait aldiz haintzen gose, nun yain beitzitien gogotic urdec yaten duzten aza osto eta fruta usteldiac, bena nehoc etzacon deusic emaiten.

4. Ilhuntebateg, tripa hutsa, utzi zien bere buria erortzera alkhi baten gagnera, soiten zielaric leyhotic ahinki hegaldaca zabiltzan chori batzuri. Gero ikhusi zitien agertzen zeruan argizegia eta izarrac, eta nigarrez zagolaric erreyten zien bere buriarekin: Hantche ene aitaren etchia bethia duc muthilez zoinec baitute ogi eta ano, arroltze eta gasna, nahi duten guzia. Dembora berian ni hemen nuc abantzu gosiac hila.

5. Aski hola! yeikico nuc eta yuain ene aitarengana eta erranen dioyat: Egin nizin bekhatu bat, kitatu zintuanian. Gaizki egin nizin, eta behar nuzu gastigatu, badakizut arraz ontsa. Ez nezazula deit gehiago zure semia, trata nezazu zure azken zerbitcharia bezala. Obendun nintzun, bena zutaric urrun etzuzun enetaco penaric beizic.

6. Aita bere baratzian zen, lilibatzu hurtaturic, bisitaten zitien memento hartan sagar ondo eta mahats batzu. Ikhusi zienian bere semia bidian oro izerdiz eta erhautsez bethia, zangua ezin yarraikiz, ezin sinhetsiz zagon planta hartan ikhusten ahal zienez. Dudan tzen heya gastigatu behar othe zien ala beharzacon barkhatu... Azkenian, nigarra begietan, bezuac semiaren alderat hedatu zitien eta lephotic besarca hartzen zielaric, eman zacon finki pot gozobat.

7. Gero yarrarazi zien bere semia; deithu zitien bere yendiac eta auzuac eta elgarretarat bilduzirenian: «Nahidut, errantzeyen, maithatu lehen bezala ene haur gaihua. Izan da azki gaztigatua: ezdezacon nehoc in orai erreprotchuric. Zaurthe ikhusazie; ekharracozie yaqueta poillit bat, ezarracozie ehaztun bat erhian eta emazcotzie zapata berriac hugnetan. Hartzen ahal duzie berguisan, oillar eta ahate eta ekharracie phicatzeco hun den aratchi bat: yanen dugu eta edanen oroc elgarrekin eta eginen phesta handi bat.

8. Muthilec obeditu zuten nausia eta ezarri dahailla eder bat mahagnian. Memento berian, seme gehiena heldu zen ihizitic bere chakhurrekin: zer da azantz

ori? oihu egin tzien yuamentu batekin. Uste dizit khantuz ari ziztela heben; Ordu ziztin yin nindadin. Ehotia zirea aita?»

9. «Ez, ene semia, enuc hala, errepostu emantzacon zaharrac. Hola egiten diat, zeren beiniaz alegrantziaz bethia. Khantatzen diaguc eta uros gituc, ezic badiaguc zertaco. Nahi ala ez, beharco duc hic ere khantatu eta gurekin bozcarioetan sarthu, zeren hire anaya hila zian eta bizirat arra yinduc. Orai sorthia baliz bezala duc: atzo galdia zian, eta egun horra nunden gurekin.

Certifié conforme à l'original

A Çaro, le 18 décembre 1894

L'Instituteur,

BISCAY

Notes

L'*u* se prononce comme *ou*.

La lettre *h* est partout aspirée.

Z a le même son que *s*, en français.

Gn se prononce comme en français, de même que la lettre *k* et *c*.

S doit se prononcer avec un léger sifflement entre les dents imitant quasiment celui du serpent.

* * *

1335

Canton de Saint Jean-Pied-de-Port

Commune d'Estérençuby

Haour prodigoua

1. Guiçonn batéc ètcitienn bi sémé baïcic. Gazténac érran çiaçoçunn béré aïtari: «Ordou douçou éné bouriaren naousi içan nadiènn éta içan déçatann dihourou. Béharçit mouaïéna youaïtéco éta couartièrrac ikhousi. Pharti çaçou çouré hountasouna éta émadaçou éni tocatcen çautana. - Aïtac érraïten daco: «baï éné sémia nahi doucann beçala. Coquïnn bat hizz eta pounitia içanénn hizz». Guéro tirénta bat idoquicènn cilaric phartitou ciènn béré hountasouna éta éguïnn ciènn bi pharté bèrdïnn bèrdinac.

2. Démbora goutirén barniann, haour gachtoua youan cèn hérritic fièrraren éguiténn cilaric éta néhori adioric érrann gabé. Phasatou citiènn campo çabal anhitzz, oïhann batçou, hour handi batçou, éta hèldou cènn hiri handi batéra; hann gastatou citiènn béré sos gouciac. Çombaït hilabétérenn bouriann, béhar oukhann citiènn saldu béré arropac émazté çahar bati, éta acordatou mouthilétaco. Igorri çoutènn landétarat astouènn éta idiènn çaitçèra.

3. Ordiann biciqui malouros içann cènn. Etcieñn guéhiago içann ohéric gaouazz étçatéco, èzz éta souric bérotcéco hotzz cèniann. Batçouétan haiñn gosé handia ciènn nonn yann béitçouzuquin chérièc yatènn ditoutzènn açà osto horic éta frouïtou oustèldou horic, baïnann néhoc étçaçonn déous émaïtènn.

4. Atx batézz, tripa houtsic, béré bouria outci ciènn érorçcèra alkhi batènn gäï-néra, so éguitènn cèrélaric léihotic chorièr çalhou hégalatcénn cirénèr. Guéro aguertcénn ikhousi citiènn cériann arguïçaguia éta içarrac éta érrann ciènn béré baï-thann nigarrézz: Béhére hartan éné aïtarènn étchia séhiz béthia douçou douténac ogui éta ano, arrolcé éta gasna nahi douténa. Arté hortann ni gosiac hila nizz hé-ménn.

5. «Eh biènn, yéïquico nizz, youanènn nizz aïtarènn gana éta érranénn dacot: Békhatu bat éguïnn niènn nahï oukhann cintoudanian quitatou. Oguénn handia içan niènn éta béhar nouçou pounitou, badaquit ountxa. Ezz, néçaçoula guéhiago déïtha çouré sémia, trata néçaçou çuré azquènn séhia béçala. Oguéndun içann nintçan éta sofricènn niçinn çoure ganic ourrounn».

6. Aïta baratciann cènn béré liliènn ihiztatcénn finitcénn. So éguitènn cèrènn sagar ondoèrr éta mahatxèrr. Ikhousi cilaric béré sémia hèldou bidian icèrdizz éta erhaoutxèzz èstalaric, çangoua hérréstatcénn cila néquétzz sinhétxi ciènn. Gogouann ibili ciènn pounitou béhar cinétzz édo barkhatou béhar çaçonnétzz. Azquéniann nigarrac béguiétann, bésouac çabaldou çazcon éta léphotic hartcénn cilaric pot handi bat émann çaçonn.

7. Yarraraci ciènn guéro béré sémia, déïthou citiènn béré étchéco yéndiac éta ouçouac: «Bildou cirélaric érrann cèrènn, nahi dicit maïthatou léhènn béçala, gäï-cho haourra. Asqui pounitia içann douçou: Ezz déçaçonn néhoc éguïnn oraï érré-protchouric batéré. Çaçouté ikhoustéra; ékharracocié fité paltto poillit bat, éçarracocié érraztunn bat éhiann éta çapéta bèrri batçou soïniann. Atcémaïten ahal toucié éré oïllar batçou, ahaté batçou éta ekhartcénn aratché bat hilcéco hounn déna: édanènn dougou, yanènn dougou èlgarréquïnn éta bèsta handi bat éguïnénn».

8. Cèrbitçarièc obéditou çacotènn bérénn naousiari éta éçarri çoutènn mahico oïhal bat éderra mahiann. Mémènto bériann, sémé guéhiéna hèldou cènn ihicitic béré chakhourréquinn. «Arnégouzz ari cèlaric oïhou éguïnn ciènn: cèrr da açantz hori bada. Ousté dicit khantuzz ari çizèttènn héménn. Ez douçou goïcégui hèl nadïnn. Erhotia ciréa, éné aïta?»

9. Çaharrac érréspouitou ciènn: Ezz, éné sémia, èzz nizz hala. Bozcariozz béthia béinizz, hortacotzz éguitènn dicit hori. Khantuzz ari guira éta ouros guira écic badicigou cèrènn. Nahi badouc éta èzz badouc béharco douc khantatou hic éré éta aléguératou gouréquïnn cèrènn éta hiré anaïa hila céna bèrrizz bici duc. Oraï sor balé-di béçala douc: atçou galdia cènn, horra nounn égounn hatcémana dènn bèrrizz.

Nota

1. Le *s* et le *x* se prononcent comme en espagnol en refoulant la langue;
2. On appuie sur les doubles lettres finales comme dans les mots français: «spécimen» et «vis»;
3. L'*y* fait comme dans «voyons»;

4. Le son *ph* est aspiré: on ne dit pas «f»;
5. Le *tt* est un *t* mouillé.

L'Instituteur public d'Estérençuby (Bourg),

J. B. LANDÉ

* * *

1336

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune d'Ispeure

Haur prodigua (empoilzalia)

1. Guizon batec etzitian bi seme baizic. Gaztenac erran zacon bere aitari: «Ordu da izan nadien ene buriaren naussi eta ukhan dezatan dihuru; yuan ahal nadien hementic eta bazter ikhus ahal dezatan. Pharteca zazu zure ontasuna eta eman ezaazu eni heldu zautana». - «Bai, ene semia, erran zien aitac: hic nahucan bezala. Gachto bat hiz eta gaztiatia izanen hiz». Gero zabaltzen zielaric tienta bat, phartecatua zien bere ontasuna eta eguin zitien bi pharte berdinaric.

2. Egun gutien burian, seme gachtua yuan sen herritic dena fantesia eta nehoric adioric erran gabe. Passatu zitien bestalderat anitz larre, oihan, hur, eta yin zen hiri handi batera non चाहतु (edo igorri) baitzien bere dihuru guzia. Zonbait hilabeteren burian saldu behar ukhan zitien bere arropac emazte zahar bati eta yarri sehi: igorri zuten landatarat astuen eta idien han zaintzera.

3. Ordian (edo han) onxa maluros izan zen; etzien gehiago oheric lo eiteco, ez suric berotzeco hotz eiten zienian. Batzuetan hoin gose handia zien non yan baitzuzken azinda beltzec yaten dituzten aza ostoa eta fruitu usteldu hec; bainan nehoc etzac on deus emaiten.

4. Arraxalde batez tripa huxa, utzi zien bere buria erortzera (edo yarri zen) zurzko alkhi baten gagnera, leihotic so eiten ziela ahinki airian zoatzin chorier. Gero ikhussi zitien agertzen zerian argizaia eta izarrac eta erran zien bere buriari nigar eiten zielaric: «Hantche, ene aitaren etchia muthilez bethia duc zoinec baitute nahuten bezainbat ogi eta ano, arroltze eta gasna. Denbora berian ni hemen gosiac hiltzen ari nic.

5. Arren yeikiko nuc, yuanen nuc ene aitaren khaussitzera eta erranen diacoat: Bekhatu bat ein nien zureganic urrundua nahi izan nienian. Oben handia ein nizin eta behar nuzu gaztiatu, baziakizut. Eznezazula gehiago deitha zure semia. Atchic nezazu zure sehietaric azkena bezala. Hobendun izan nintzan, bainan zureganic urrun hurtzen ari nintzan (edo biziki sofritzen nien)».

6. Aita bere baratziaren zen bere lilien hurtatzia akabatzen ziela: saar ondoac eta mahaxac ikhertzen zitiela. Ikhusi zienian bidiaren gagnian bere semia izerdiz eta erhauhez guzia estalia, zangua herrestan zeramala, doi doia sinhexi zien hura haren

semia zela. Bere baithan erran zien behar zienez bere semia gaztiatu ala behar zacon barkhatu. Azkenian nigarra begietan, bessuac hedatu zazcon eta bere buria botatzen ziela haren lephora pot handi bat eman zacon.

7. Gero yar arazi zien bere semia; galdein zitien bere sehiac eta auzuac: «Nahi dut maithatu lehen bezala, gaicho haurra, erran zeen bildu zien bezain laster. Aski gaztiatia izan da; nehoc eztezacola orai ein erreprotchuric batere. Zaurte hunen ikhustera; ekhar acozie laster barneco gagneco poillit bat; ezarzkotzie ehaztun bat ehian eta zapata berriac zanguetan. Oillarrac eta ahatic ere hartuco ahal tuzie eta ekharrico hiltzeco hun (edo aski gizen den) aetche bat: elgarrekin edanen, yanen eta besta handi bat einen dugu».

8. Sehie obeditu zuten beren nausia eta ezarri zuten tafaila eder bat mahaiaren gagnian. Memento berian, seme gehiena itzultzen zen ihizitic bere chacurrekin. «Zer da beraz habarrox hori? oihu ein zien yuramentuca. Iduri zaut khantuz ari zieztela hemen; ordu zen naski itzul nindadien. Ehotia zirea aita?»

9. «Ez, ene semia, ez nuc hala, errepostu eman zien aita zaharrac. Alegrantziaz bethia nizalacotz eiten diat hola. Khantuz ari gituc eta uros gituc ezic badiagu arrazoina. Nahi ala ez nahi hic ere ein beharco duc khantu eta gurekin alegeratu, zeren eta hire anaia hila zena phiztu baita: doi doia sorthu balitz bezala duc; atzo galdia zucan, egun berriz idiena duc».

Observations

Toutes les lettres se prononcent dans le basque;

Exemple: *aita* se prononce *a-i-ta*; *aitia* = *e-i-tia*; *zaut* = *z-a-ut*.

Le *u* se prononce *ou* dans la Basse-Navarre;

Le *g* a le son dur devant toutes les voyelles et ne se prononce jamais *j*;

Dans le basque, on ne met jamais d'accent sur les *e*; tous les *e* sont fermés;

Le *z* a aussi le son dur et équivaut à *ç*.

Instituteur,

EPHERRE-IRIART

* * *

1337

Canton de Saint Jean-Pied-de-Port

Commune de Jaxu

Haur prodigua

1. Guizon batek etzitien bi seme bezik. Gaztenak erraiten dizi bere aitari: «Ordu dizi izan nain neure nausi eta ukan dezan diru. Behar nuzu yuan ahal eta behazit

ikusi leku. Zati zazu zure huntasuna eta emanezazu nik beharduana. - Ba, ene semia erraiten dizi aitak, nahi dukan bezala. Gaichto bat hiz eta gaztigatia izain hiz». Gero idokik tiranta bat, zatitzen dizi bere huntasuna eta egiten dizi bi parte berdin.

2. Egun bakar batzue burian, seme gaichtua yuaiten duzu herritic eginez fierra, eta erran gabe adio nehoi. Traversatzen dizi anhitz leku putzuzu, oyhanak, hur haundiak, eta yuaiten duzu hiri haundi batera, nun despndiatzen baitu bere sos guzia. Zombait ilhaitein burian, saldu beharthu zitzen bere philda zarrak emazte zahar bati eta accordathu zuzun muthil izaiteko: igortzen dizie alhorretat han zaintzeko astuak eta idiak.

3. Ordian izan zuzun biziki malhuros. Etzizin geyho oheik lo egiteko gauaz, ez ere suik berotzeko egiten zienian hotz. Zombait aldiz hain gose haundia zizin yanen baitzien untsa aza osto eta fruta usteldu urdek yaten duztenak; bainan nehok etzia-kozien deus emaiten.

4. Ats batez, tripa hutsa, utzi zuzun erortzea, alki baten gainea, so eginez leyhotik chorier zoinac hegaldatzen baitzien ahinki. Gero ikusi zizin agertzen zerian argizaria eta izarrak eta erraiten dizi nigarrez: Han, ene aitain etchia bethia duzu mutilez zoinak baitute ogia eta anua, arrultziak eta gasna nahi duten bezembat. Dembora berian ni hiltzen nuzu gosiaikin hemen.

5. Eh bien, nahi nuzu yeiki, yuain nuzu hatzemaitea neure aitain eta erranen, diakozut: Egin nizin bekatu bat nahi ukan zinthuanian zu utzi. Ukan nizin hoben haundia, eta behar nuzu gaztigatu, badakit untsa. Ez nezazula deita geyho zure semia, trata nezazu zure muthil undarra bezala. Hobendun ninduzun, bainan peritzen ari ninduzun zutaik urrun.

6. Aita bere bahatzian zuzun, bere lilien ihiztatzen finitzen ari: bisitatzen zitzen sahar onduak eta mahasak. Ikusi zienian yiten bidiaian gainian bere semia guzia estalia izerdiz eta erhautses, herrestan zangua, doy doya sinhetsi ahal zizin. Galdegin zizin behar zienez gaztigathu ala behar zienez barkathu. Enfin, nigarrak begietan, besuak luzathu ziazcotzun, eta erorik hain lephora emaiten diakozu pot gizen bat.

7. Gero yarrazten dizi bere semia, galdegitentzi bere yendiak eta auzuak: «Nahi dizit maitathu lehen bezala, gacho haurra, erraiten diezu bildu zien bezain laster. Aski gaztigatia izan duzu, ez dezakotela nehok geyho egin erreprotchurik. Zaurte ikustea; ekarrakozie behala palto poillit bat, ezarrakozie ehaztun bat ehian eta zapata berriak oinetan. Harthuko ahal thuziere, oillarrak, ahatiak, eta ekar ahatche bat huna hiltzeko; behar dizigu edan, yan elgarrekin eta egin besta haundi bat.

8. Mutilek obeditzen dizie beren nausiari eta ezartzen dizie tafaila eder bat mahiaren gainian. Memento berian, seme lehena, heldu zuzun ihizitiki bere chakur-rekin. «Zer da beraz azantz hau? oyhu egiten dizi yuamenthuka. Uste dizit kantatzen duzien hemen; ezduzu goizegi arrayin nain. Eho zirea, ene aita?

9. Ez, ene semia, eznuak hala, erresponditzen dizi zaharrak. Egiten badut hori, zeren alegrantziak bethia bainiz. Kantatzen diau eta uroz gituk, zeren baitugu untsa zertaik. Hik nahik ala ez, beharko duk kantatu hik ere eta algerathu gurekin, zeren hire anaya zoina hila baitzen arra itzuli baita bizirat. Sorthu balitz bezala duk: atzo galdia zian, egun horra arra-hatzemana.

L'Instituteur,

JN. POUCHOUHITÉGUY

(Notes)

- (z) se prononce (s)
- (s) se prononce (j)
- Les (e) se prononcent (é)
- (u) se prononce (ou)
- (ai) se prononce (aï)
- (au) ----- (aü)
- Lisez (naüsi) et non (nausi)

* * *

1338

Canton de St Jean-Pied-de-Port

Commune de Lacarre

Haour beïrougabia

1. Guizon batec⁽¹⁾ ez zouen bi seme⁽²⁾ baizen⁽³⁾. Gazteenac eran zion⁽⁴⁾ bere aïtari: «Ordou dizou neoure naousi izan nadin eta oukhan⁽⁵⁾ dezadan dihourou. Behar dizou joan ahal izan nadin eta ikhous dezadan lekhou. Zathi zazou zoure ontasouna, eta emadazou oukhan behar doudana. - Ba, ene semea, eraïten dio aï-tac; nahi doukecan bezala. Gachto bat hiz eta pounitouïa izanen hiz». Guero zabalzen douelatic tiranta bat, zathitou zouen bere ontasouna eta eguin bi zathi berdinac.

2. Egoun goutiren ondoan, seme gachtoa yoan zen herritic eguiten zouelatic sendoa; eta adioric eran gabe nehor. Igaran zouen hanitz larre, oïhan, ouhaïtz, eta yin zen hiri handi batera, non gouastatou baïtzouen bere dihourou gouzia. Zembait hilabeteren bourian, behar oukhan zitouen saldou bere phildac emazte zahar bati eta bera eman mouthil: igori zouten campaderetarat astoen eta idien zaintzerat.

3. Ordouian izan zen biciki dohacabe. Ez zouen guehiago oukhan oferic lo eguiteco gaouaz, ez etare souric berotceco hotz eguiten zouenean. Zembait aldi haïn gose handia zouen yan baïtzitouzken aza osto eta frouitou ousteldou ourdec yaten zitouzten heyec; bainan nehorc ez zacoten emaiten deousic.

4. Arax batez, sabela houxic, bere bouria aurthiki zouen alkhi batera, behatzen zouila leïhotic arhinki hegaltatzen ziren chorieri. Guero ikhousi zitouen aguertzen zerian arguizaïa eta izarrac, eta eran zouen bere baïthan nigarez zagoelatic. Han, ene aïtaren etchea bethia da sehiz zeinec baïtoute ogui, arno, aroltze eta gasna, nah[i d]outen bezembat. Dembora berean, ni, hiltzen niz gosez hemen.

